# EUSKADIKO ADINEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

## 3. TOMOA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EUSKADIKO ADINEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2005

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA (Lan osoa):** | "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" |
| **IZENBURUA (3. Tomoa):** | "Euskadiko adineko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" |
| **EGILEA:** | EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz |
| **AUTOREAK:** | Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona. Genero Azterlanen taldea. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Politika eta Administrazioa Zientzien Saila |
| **IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** | Ana Rincón |
| **ILUSTRATZAILEA:** | Iñigo Ordozgoiti |
| **DATA:** | 2005eko maiatza |
| **ALE-ZENBAKIA:** | 1.300 |
| **DESKRIBATZAILEAK (Lan osoa):** | Emakumeen egoera, gazteak, helduak, adinekoak, partaidetza politikoa, datu estatistikoak |
| **DESKRIBATZAILEAK (3. Tomoa):** | Emakumeen egoera, adinekoak, datu estatistikoak |
| **INPRIMAKETA:** | Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz |
| **ISBN (Lan osoa):** | 84-87595-04-9 |
| **ISBN (3. Tomoa):** | 84-87595-97-9 |
| **LEGE GORDAILUA:** | VI-198/05 |

# AURKIBIDEA


AURKEZPENA .......... 7

1. SARRERA .......... 11

2. ADINEKO PERTSONEN PROFILA .......... 15
   2.1. Adineko biztanleriaren egitura .......... 17
   2.2. Ezkontza-tasa eta familiak .......... 20
   2.3. Adineko biztanleria atzerritarra .......... 27
   2.4. Hezkuntza-maila eta euskara .......... 32

3. ADINEKO BIZTANLERIAREN ERRENTA ETA GIZARTE BAZTERKERIA .......... 37
   3.1. Jarduera eta errenta .......... 39
   3.2. Pobrezia eta gizarte-bazterkeria .......... 42

4. ADINEKO PERTSONEN DENBORA .......... 47
   4.1. Aisialdia eta gizarte-harremanak .......... 51
   4.2. Adineko pertsonen kirol-jarduera .......... 59
   4.3. Hezkuntza eta teknologia berriak ezagutzeko aukera .......... 62
   4.4. Elkartasuna eta zainketa-lanak .......... 66
   4.5. Erlijiotasuna .......... 70

5. ADINEKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA .......... 73

6. **ADINEKO PERTSONEN OSASUNA** . . . . . . . . . . 81
6.1. Osasunaren pertzepzioa eta arazoak . . . . . . . . . . 83
6.2. Osasun-baliabideen erabilera . . . . . . . . . . 86
6.3. Heriotza eragiten duten arrazoiak . . . . . . . . . . 89
6.4. Osasunaren gaineko arriskuak . . . . . . . . . . 94
6.5. Adineko pertsonak eta ezintasuna . . . . . . . . . . 96

# AURKEZPENA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honelaxe definitzen du aukera-desberdintasuna: emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzea, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.

Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, gaur egun nazioarte-mailan egokienentzat jotako bi printzipio edo estrategia osagarriak definitzen ditu: genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa. Printzipio horiek aplikatzeak ekarriko du emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Aurrekoa lortzeko beharrezkoa da, besteak beste, sexukako estatistikak izatea. Izan ere, haien bidez zehatzago ezagutuko dira kolektibo bakoitzaren egoera, genero-harremanak eta berauek oraindik gure gizarte-ereduaren ezaugarri den eta sexuaren arabera hierarkizatutako gizarte-antolaketaren mantenimenduan eta eraikuntzan duten papera.

Datuak ere sentsibilizazio sozialerako baliabide indartsu dira errealitatearen eta gure inguru hurbilenean imajinatu edo antzemandako egoeraren arteko distantzia eta aldea erakusten baitituzte. Pertzepzio hori hainbat diskurtso sozialetan adierazi eta desiratutako egoeratik hurbil dago, teorikoki behintzat. Datuek berdintasunaren espejismoa deritzona ezabatzen dute. Distantzia horren kontzientzia pertsonala eta soziala beharrezko elementuak dira botere publikoen ekintza positiborako politikak ezartzea onartzeko. Politikok, batzuetan, ondoen dagoen kolektiboak, kasu honetan gizonezkoek, eskubide eta aukeren murrizketatzat hartzen du, gizarte osoaren onuratzat baino. Desberdintasunen kontzientzia sozialak exijitu eta, aldi berean, ahalbi-

detzen du ekintza politikoa. Halaber, lortu nahi den ereduranzko jokabide pertsonalen eta sozialen aldaketa sustatzen du.

Emakundek 1991.urtean argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko lehenengo txostena. Harrezkero, urtero, datuak eguneratuz eta esku hartzeko sektore edo arloei buruzko informazioa sartuz joan da, administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurrien garapenean eta konpromisoan izandako aurrerapenari esker. Horren isla dira orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hiru ekintza positiboko planen urteko ebaluazioak eta ebaluazio globalak. Aurreko guztiak sexu-aldagaia estatistika-eragiketetan zein gure administrazioetako eskumeneko sailek eta atalek egindako ikerketetan sartzea ahalbidetu du.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu eta hainbat komunikabideren bidez -hitzaldiak, artikuluak, web-orria, e.a.- zabaldu dira. Horietariko bat, paper-euskarridun argitalpena edo liburua, Euskadiko emakumeentzako ekintza positiboko plan bakoitzarekin batera erabili da. Orain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea egitearekin eta onartzearekin batera, beste argitalpen hau aurkezten dugu hiritarrek Legearen beraren edukiak ulertzen eta botere publikoek benetan aplikatzen lagunduko duelakoan.

Txostena, nagusiki, ikuspegi kuantitatibo batetik egin da, eta bizitzaren etapak –gaztaroa, helduaroa, 3. adina- hartu ditu oinarrizko erreferentzia, kolektibo bakoitzaren egoera espezifikoak bereizteko eta aztertzeko. Txostenaren osagarri gisa, politika-arloan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko analisi espezifiko bat dator. Ez ditu bete nahi arestian aipatutako Legeak planteatutako estatistikak hobetzeko eskakizun guztiak, eta, zentzu honetan, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoera ezagutzeko ekarpen garrantzitsutzat, baina partzialtzat hartu behar da. Izan ere, ezagutza horren alde kuantitatiboetan zein kualitatiboetan sakontzen jarraitu beharko da.

Berdintasunaren kontzeptuak, ezbairik gabe, biei egiten die erreferentzia. Ikuspegi kuantitatibotik, emakumeen eta gizonen banketa berdina, %50 ingurukoa, litzateke

gizarte, hezkuntza, lan, aisialdi eta boterearen arlo guztietan. Ikuspegi kualitatibotik, eremu publikoan zein pribatuan norberaren gaitasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko askatasunari egiten dio erreferentzia, batetik; eta bestetik, emakumeen eta gizonen ezagutzak, baloreak, ekarpenak eta esperientziak, jokabideak, jomugak eta beharrizanak berdin balioesten eta sustatzen dituen gizarteari.

Berdintasuna lortzea XXI. mendearen lehenengo urte hauetan, oraindik ere, benetako erronka da munduko herrialde guztientzat, salbuespenik gabe. Argitalpen honek erronka horri tresna onekin, eta profesionaltasunik eta gogorik handienekin aurre egiten laguntzea espero dugu.

TXARO ARTEAGA ANSA

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

# 1

# SARRERA

Azken urteetan areagotu egin da Herri Administrazioek xede duten gizarte-errealitatea ezagutzeko agertutako interesa. Azken helburua da gizartea osatzen duten taldeei erantzuteko politika publiko eraginkorragoak garatzen laguntzea. Hain zuzen, azterketen politikak izandako garapenaren isla zuzena da gizarteko sektore jakin batzuk berariaz aukeratu eta horien bizimodua eta izan ditzaketen berariazko behar eta eskariak ezagutzeko egiten diren azterketak.

Zentzu horretan, Emakundek urtero lantzen ditu Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzko txostenak; txosten horietan gizarteko hainbat esparrutako adierazleak erabiltzen dira eta helburu bakarra dute, sexuen arteko desberdintasunak antzemateko eta ikusteko bitarteko egokiak eskaintzea alegia. Aurten landu den azterlana diseinatzeko orduan aldagai berri bat barne hartu da: adina. Datuak adinaren arabera xehatuz hobeto ezagutuko dugu Euskadiko gizarte-errealitatea, izan ere, emakume eta gizonen bizi-baldintzak gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan ezagutzeko aukera eskaintzen digu adinaren araberako bereizketak.

Txosten honetan, adineko pertsonen inguruko azterketa eta gogoeta egin da, hortaz, ondorengo orrietan hainbat adierazle edo elementu aipatuko eta adieraziko dira, adin jakin batetik aurrera emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoerak ulertzen laguntzeko. Azterketa honetan hainbat adierazle aukeratu dira adineko pertsonen kontzeptua mugatzeko. Oro har, adineko pertsonatzat jo dira 65 urtetik gorako pertsonak; garrantzi handiko unea da, izan ere, adin horretan uzten dute pertsona gehienek, eskuarki, lan-merkatua eta adin horretan aldaketa kualitatiboak izaten dira pertsona askoren bizitzan, eta erosteko ahalmena, osasuna, familia eta denbora ere aldatu egiten dira. 65 urtetan jarri den muga artifizial horrek, alabaina, adineko pertsonak aztertzeko orduan hutsune edo akats metodologikoak ekar ditzake, izan ere: alde batetik, adin horretako zenbait pertsonek (batez ere emakumeak) ez dute inoiz soldatako lanik eduki eta, beraz, 65 urte izateak ez du aldaketarik ekarri pertsona horiek garatzen duten jarduera nagusira, ez eta beren bizitzara ere; bestalde, aldaketa demografikoen eta gizarte- eta enplegu-politika berrien ondorioz, gero eta gehiago dira 65 urte bete aurretik lan-bizitza amaitzen duten pertsonak. Hori guztia kontuan

hartuta, eta azterketa hau egiteko erabili diren iturriak mugatuta daudela kontuan hartuta, zenbait kasutan oraindik 65 urte bete ez dituzten adineko pertsonei buruzko adierazleak barne hartu dira.

Biztanleriaren zahartzea, bestalde, izaera unibertsala duen gertaera saihestezina da eta ondorio eta arazo jakin batzuk eragiten ditu bizitzaren hainbat esparrutan, hala nola esparru ekonomikoan, sozialean, familiaren baitan eta laguntza-esparruan. Zahartzea, haatik, ez da gertaera negatibotzat ulertu behar. Gizarteak ezagutu dituen aldaketei eta aurrerapen teknikoei eta osasun-esparruko aurrerapenei esker, gero eta aktiboagoa, positiboagoa eta solidarioagoa da zahartzaroa eta gure gizartera ekarpen handia egiteko ahalmena du.

Adineko pertsonen esparruan egindako ikerketen arabera, modu desberdinak erakusten dituzte osasunak, ekonomiak, bakardadeak edo pobretasunak eragindako arazoei aurre egiteko. Aipatutako zenbait egoera intentsitate desberdinarekin bizi dituzte gizonek eta emakumeek. Hain zuzen, emakumeen bizi-itxaropena luzeagoa dela kontuan hartuta, emakume gehiago daude adineko pertsonen artean eta, ondorioz, aipatutako zenbait fenomenorekin duten erlazioak (gizarte-bazterkeria, bakardadea...) berariazko ezaugarriak erakusten ditu.

Txosten honetan, gizarte-errealitatea osatzen duten honako alor hauekin erlazionatutako adierazleak erabili dira: demografia, denboraren erabilera, osasuna, indarkeria eta errenta eta gizarte-bazterkeria. Zenbait kasutan, oso zaila izan da errealitatea modu zehatzean islatuko duten adierazleak aurkitzea, hortaz, gaiaren inguruan egin diren lanetan oinarrituta landu dira ondorioak eta egin dira gogoetak. Txostenean jarraitutako metodologiari dagokionez, oraingoan zenbait adierazle berri erabili dira, eta beste zenbait Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko datuak txostenetan jada erabilitakoak dira. Gure lanean erabili den informazioa erakunde autonomikoek eta estatukoek, batez ere EUSTATek eta INEk, landutako estatistiketatik hartu da nagusiki.

# 2

# ADINEKO PERTSONEN PROFILA

Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, 2001ean 2.082.587 pertsonak osatzen zuten Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleria; horietatik %35,8k 50 urte baino gehiago zituzten eta %17,93k 65 urte baino gehiago. Zahartzen ari den biztanleria da eta jaiotza-tasa heriotza-tasa baxuak dira.

*EAEko biztanleriaren %17,93k 65 urte baino gehiago dituzte.*

## ADINEKO BIZTANLERIAREN EGITURA 2.1

2001ean, EAEn 65 urtetik gorako 373.420 pertsona zeuden eta horietatik %58,4 emakumeak ziren. Adinaren piramidean gora egin ahala, ugaritu egiten da emakume-kopurua; horrela, 100 urtetik gorako biztanle-taldean %84,1 emakumeak dira. Emakumeak urte gehiago bizi dira eta fenomeno hori "zahartzaroaren feminizazioa" izenarekin ezagutzen da.



## 2.1. TAULA Biztanle adin-nagusiak (bost urteko tarteak). Portzentaje horizontalak. 2001

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 65-69 | 115.569 | 61.270 | 53,0 | 54.299 | 47,0 |
| 70-74 | 100.508 | 55.159 | 54,9 | 45.349 | 45,1 |
| 75-79 | 75.513 | 44.920 | 59,5 | 30.593 | 40,5 |
| 80-84 | 44.635 | 29.257 | 65,5 | 15.378 | 34,5 |
| 85-89 | 25.175 | 18.055 | 71,7 | 7.120 | 28,3 |
| 90-94 | 9.746 | 7.485 | 76,8 | 2.261 | 23,2 |
| 95-99 | 2.028 | 1.657 | 81,7 | 371 | 18,3 |
| 100 edo gehiago | 246 | 207 | 84,1 | 39 | 15,9 |
| **Guztira 65 urtetik gorakoak** | **373.420** | **218.010** | **58,4** | **155.410** | **41,6** |
| **Guztira biztanleria** | **2.082.587** | **1.064.704** | **51,1** | **1.017.883** | **48,9** |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

Azken urteetan aurrera egin du biztanleriaren zahartze-prozesuak. Emakumeak dira, beti, 65 urtetik gorako adineko pertsonen artetik erdia baino gehiago eta 75 urtetik gorako pertsonen %60 baino gehiago.

## 2.2. TAULA 65 urte eta gehiago dituzten biztanleen bilakaera. Portzentaje horizontalak. 1975-2001

| | 65 URTE ETA GEHIAGO | | | 75 URTE ETA GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| 1975 | 100,0 | 59,9 | 40,1 | 100,0 | 64,4 | 35,6 |
| 1981 | 100,0 | 59,9 | 40,1 | 100,0 | 65,4 | 34,6 |
| 1986 | 100,0 | 61,2 | 38,8 | 100,0 | 66,2 | 33,8 |
| 1991 | 100,0 | 60,2 | 39,8 | 100,0 | 66,3 | 33,7 |
| 1996 | 100,0 | 59,2 | 40,8 | 100,0 | 66,5 | 33,5 |
| 2001 | 100,0 | 58,4 | 41,6 | 100,0 | 64,6 | 35,4 |

ITURRIA: EUSTATen informazioan oinarrituta landutako datuak. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak.

Zahartzaroan nagusi dira emakumeak eta hori baieztatzeko emakumeen eta gizonen zahartze-indizeari erreparatu besterik ez da egin behar. Zahartze-indizeak adierazten du biztanleriaren guztizkoarekiko 65 urtetik gorako biztanleen portzentajea.

## 2.3. TAULA Zahartze-indizearen bilakaera. 1975-2001

| | | ZAHARTZE INDIZEA | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| 1975 | 8,3 | 9,8 | 6,7 |
| 1981 | 9,1 | 11,0 | 7,2 |
| 1986 | 10,2 | 12,3 | 8,0 |
| 1991 | 12,4 | 14,7 | 10,1 |
| 1996 | 14,9 | 17,3 | 12,4 |
| 2001 | 17,9 | 20,5 | 15,3 |

ITURRIA: EUSTATen informazioan oinarrituta landutako datuak. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak.

Oharra: "Zahartze-indizeak" adierazten du biztanleriaren guztizkoarekiko 65 urtetik gorako pertsonen portzentajea.

Azken hamarkadetan, EAEko zahartze-indize orokorrak gora egin du: 1975ean 8,3 zen zahartze-indizea eta 2001ean 17,9ra iritsi da. Hala ere, emakumeen zahartze-indizeak bilakaera handiagoa ezagutu du, eta gizonen zahartze-indizearekin aurkajarrita ageri zaigu.

**Emakumeen nagusitasuna zahartzaroan**

*— Gehiengoa dira emakumeak EAEko 65 urtetik gorako biztanleen artean.*

*— Emakumeen portzentajeak gora egiten du adinaren piramidean aurrera egin ahala.*

# EZKONTZA-TASA ETA FAMILIAK 2.2

Ezkontza-tasa eta familien osaera behin eta berriro aldatzen ari diren bi fenomeno demografiko dira, eta modu berezian eragiten dute adineko pertsonen taldea.

EAEko 65 urtetik gorako pertsona gehienak ezkonduta daude edo ezkonduta egon dira inoiz. Zehazkiago, gizonen artetik %8,40 eta emakumeen artetik %8,99 bakarrik dira pertsona ezkongabeak. Bi sexuen arteko desberdintasunak pertsona ezkonduen eta alargunen taldeetan aurkituko ditugu nagusiki. Gizon gehienak ezkonduta daude (%79,02), eta emakumeak berriz, antzeko portzentajeak lortu dira ezkonduta daudenen artean (%45,15) eta alargunak direnen artean (%44,80).

**2.4. TAULA EAEko 65 urtetik gorako pertsonen egoera zibila. Portzentaje bertikalak**

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS | % | ABS | % |
| Ezkongabeak | 12.793 | 8,40 | 18.827 | 8,99 |
| Ezkonduak | 120.287 | 79,02 | 94.599 | 45,15 |
| Alargunak | 17.365 | 11,41 | 93.860 | 44,80 |
| Bananduak | 1.284 | 0,84 | 1515 | 0,72 |
| Dibortziatuak | 500 | 0,33 | 710 | 0,34 |
| **GUZTIRA** | **152.229** | **100,00** | **209.511** | **100,00** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Bien arteko desberdintasunak are nabarmenagoak dira adin-tarteei erreparatuz. Horrela, emakumeak gehiago bizi direla kontuan hartuta eta zahartzaroaren feminizazioa kontuan hartuta, 80 urtetik gorako emakumeen erdia baino gehiago dira alargunak. Gizonen kasuan, alabaina, 95 urtetik aurrera erregistratu dira alarguntza-indize altuak, nahiz eta emakumeen indizeak baino baxuagoak izan.

**2.5. TAULA** **Familia-etxebizitzan bizi diren biztanleak adinaren eta egoera zibilaren arabera. Balio absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2001**

| | GIZONAK | | | | | | EMAKUMEAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EZKONGABEAK | EZKONDUAK | ALARGUNAK | BAN. | DIBOR. | GUZTIRA | EZKONGABEAK | EZKONDUAK | ALARGUNAK | BAN. | DIBOR. |
| 65-69 | 53.768 | 9,3 | 83,4 | 5,6 | 1,2 | 0,5 | 60.408 | 6,9 | 66,7 | 24,6 | 1,3 | 0,6 |
| 70-74 | 44.660 | 9,1 | 81,0 | 8,6 | 0,9 | 0,4 | 54.075 | 8,7 | 53,8 | 36,4 | 0,8 | 0,4 |
| 75-79 | 29.991 | 7,5 | 78,6 | 13,1 | 0,6 | 0,2 | 43.472 | 10,0 | 38,5 | 50,8 | 0,5 | 0,2 |
| 80-84 | 14.879 | 6,7 | 71,3 | 21,5 | 0,3 | 0,1 | 27.632 | 10,9 | 22,9 | 65,9 | 0,2 | 0,1 |
| 85-89 | 6.724 | 6,0 | 60,4 | 33,1 | 0,4 | 0,1 | 16.305 | 11,4 | 11,4 | 76,9 | 0,2 | 0,1 |
| 90-94 | 2.078 | 6,4 | 44,0 | 49,2 | 0,3 | 0,1 | 6.459 | 11,2 | 3,6 | 85,1 | 0,1 | 0,0 |
| 95-99 | 324 | 8,3 | 19,4 | 71,7 | 0,6 | 0,0 | 1.372 | 11,7 | 1,6 | 86,6 | 0,0 | 0,0 |
| 100 edo gehiago | 37 | 8,1 | 10,8 | 78,4 | 2,7 | 0,0 | 162 | 7,6 | 3,8 | 88,6 | 0,0 | 0,0 |
| **Biztanleria GUZTIRA** | **1.012.268** | **47,6** | **48,1** | **2,2** | **1,3** | **0,7** | **1.054.231** | **39,6** | **46,2** | **11,3** | **1,8** | **1,1** |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE: "Ban.": Pertsona bananduak eta "Dibor.": "Pertsona dibortziatuak".

Pertsona ezkongabeen profila aldatu egiten da adinaren edo jatorrizko lurralde historikoaren arabera. Adibidez, emakume zaharrenen artean, hau da, 1925. urtea baino lehen jaiotakoak, emakume gazteenen artean baino altuagoa da ezkongabeen indizea. Aitzitik, gizonen kasuan antzekoak dira belaunaldi desberdinen indizeak, nahiz eta desberdintasunak ikus daitezkeen jaiotako lekuaren arabera.

**2.6. TAULA** **50 urte baino gehiagoko pertsonen proportzioa urteka, jaiotako lekuaren arabera eta sexuaren arabera (%). 2002**

| | GUZTIRA | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | BESTE HAINBAT PROBINTZIA | | ATZERRIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | H | M | H | M | H | M | H | M | H | M | H | M |
| 1950-1946 | 10,65 | 6,15 | 18,35 | 8,00 | 9,83 | 8,61 | 14,99 | 7,94 | 8,51 | 3,03 | - | 24,20 |
| 1945-1941 | 9,76 | 6,47 | 17,27 | 8,71 | 12,81 | 9,39 | 16,18 | 10,21 | 4,83 | 3,02 | 18,11 | - |
| 1940-1936 | 9,95 | 4,82 | 14,65 | 5,37 | 12,79 | 7,40 | 16,95 | 5,19 | 6,02 | 3,07 | - | 14,07 |
| 1935-1931 | 9,10 | 6,10 | 12,03 | 7,60 | 10,61 | 7,77 | 10,47 | 11,61 | 7,09 | 2,55 | - | 11,16 |
| 1930-1926 | 6,22 | 9,16 | 13,49 | 5,92 | 8,02 | 11,27 | 8,00 | 17,63 | 2,94 | 3,73 | - | 16,80 |
| 1925-1921 | 6,28 | 11,94 | 10,21 | 14,19 | 8,44 | 12,68 | 11,41 | 23,10 | 1,44 | 3,85 | - | - |
| 1920-1916 | 10,68 | 12,55 | 19,09 | 8,43 | 5,74 | 10,95 | 11,72 | 21,04 | 12,85 | 8,24 | - | - |
| **GUZTIRA** | **9,14** | **7,55** | **14,96** | **8,18** | **10,33** | **9,64** | **13,24** | **13,03** | **6,03** | **3,38** | **2,84** | **13,71** |

ITURRIA: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2002.

Ezkonduta dauden edo ezkonduta egon diren adineko pertsona gehienak nahiko gazte ezkondu ziren. Beste belaunaldi batzuetan gertatzen den bezalaxe, emakumeek gizonek baino gazteago ezkontzeko joera dute. 60 urtetik gorako pertsonen kasuan, gizonak 27-30 urterekin ezkondu dira lehenengo aldiz batez beste eta emakumeak, berriz, 27 baino gutxiagorekin.

**2.7. TAULA** **60 urte eta gehiagoko biztanleria belaunaldika, sexuaren, ezkongabeen proportzioaren (%) eta lehenengo aldiz ezkontzeko adinaren arabera. 2002**

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | EZKONGABEAK EZ DIREN PERTSONEN PROPORTZIOA | BATEZ BESTEKO ADINA | EZKONGABEAK EZ DIREN PERTSONEN PROPORTZIOA | BATEZ BESTEKO ADINA |
| 1940-1936 | 900,41 | 27,75 | 951,71 | 24,92 |
| 1935-1931 | 908,94 | 28,84 | 938,96 | 26,07 |
| 1930-1926 | 937,65 | 29,45 | 908,31 | 26,68 |
| 1925-1921 | 937,05 | 29,83 | 880,44 | 27,00 |
| 1920-1916 | 892,79 | 30,66 | 874,33 | 26,89 |

ITURRIA: EUSTATen informazio egokitua. Inkesta Demografikoa, 2002.

Ezkontza-tasaren inguruko estatistikei erreparatuz, oso gutxi dira adineko pertsonen artean izandako ezkontzak. Hain zuzen, adin horretan ezkontzen diren pertsonen ehunekoak ez du %1 gainditzea lortu azken hamabost urteetan; hala ere, kasu horretan altuagoak dira gizonek lortutako indizeak.

**2.8. TAULA** **60 urtetik gorako ezkontideen bilakaera sexuaren arabera. 1986-2001**

| | | SENARRAK | | EMAZTEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | >60 | GUZTIRA | >60 | GUZTIRA |
| 1.986 | Abs. | 61 | 9.471 | 32 | 9.685 |
| | % | 0,6 | 100,0 | 0,3 | 100,0 |
| 1.991 | Abs. | 55 | 9.767 | 24 | 10.013 |
| | % | 0,6 | 100,0 | 0,2 | 100,0 |
| 1.996 | Abs. | 82 | 9.527 | 31 | 9.653 |
| | % | 0,9 | 100,0 | 0,3 | 100,0 |
| 2001 (a) | Abs. | 65 | 9.340 | 27 | 9.607 |
| | % | 0,7 | 100,0 | 0,3 | 100,0 |

ITURRIA: EUSTAT. Ezkontzen estatistika. Oharra: (a) Behin-behineko datuak.

Banantzeei dagokienez, adineko pertsonen artean oso gutxi izaten dira banantzen direnak. 2001ean, 60 urtetik gorako pertsonen banantzeak eta dibortzioak ez ziren guztizkoaren %5era iritsi. Banantzeen eta dibortzioen indizeei erreparatuz, 60-69 urte bitarteko gizonen artean adin bereko emakumeen artean baino indize altuagoak lortu dira.

## 2.9. TAULA Banantzea, banantze-motaren eta adinaren arabera. 2001

| | BANANTZEAK | | | | DIBORTZIOAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| 60-69 | 81 | 3,8 | 42 | 2,0 | 48 | 3,7 | 30 | 2,3 |
| 70 eta gehiago | 17 | 0,8 | 9 | 0,4 | 8 | 0,6 | 3 | 0,2 |
| Banantzeak guztira 60 urte baino gehiago | 98 | 4,6 | 51 | 2,4 | 56 | 4,3 | 33 | 2,5 |
| **Guztira banantzeak** | **2.148** | **100,0** | **2.148** | **100,0** | **1.301** | **100,0** | **1.301** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Estatistika judizialak 2001.

1998-2001 arteko banantze-indizeen bilakaerak ez ditu ondorio berriak ekartzen. Gizonak emakumeak baino sarriagotan banandu dira aldi osoan, eta banantze gehiago izan dira, gainera, 60-69 urte bitarteko gizonen artean.

**2.10. TAULA Adineko pertsonen banantzeen bilakaera banantze-motaren eta adinaren arabera. 1998-2001**

| | 1998 | | 1999 | | 2000 | | 2001 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BANANTZEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| 60-69 | 77 | 47 | 95 | 63 | 79 | 54 | 81 | 42 |
| 70 eta gehiago | 16 | 10 | 17 | 11 | 18 | 8 | 17 | 9 |
| **Guztira banantzeak** | **2.215** | **2.215** | **2.106** | **2.106** | **1.967** | **1.967** | **2.148** | **2.148** |
| DIBORTZIOAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| 60-69 | 68 | 48 | 51 | 34 | 59 | 36 | 48 | 30 |
| 70 eta gehiago | 11 | 4 | 8 | 5 | 11 | 9 | 8 | 3 |
| **Guztira dibortzioak** | **1.394** | **1.394** | **1.359** | **1.359** | **1.303** | **1.303** | **1.301** | **1.301** |

ITURRIA: INE. Estatistika judizialak 2001.

*— Adineko emakumeen artetik %44,80 alargunak dira.*
*— Adineko gizonen %11,41 bakarrik dira alargunak.*

2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, azken urteetan hazkunde nabarmena ezagutu du EAEko familia-kopuruak. Hazkunde kuantitatibo hori ulertzeko kontuan hartu behar dira azken garaiotan familiaren baitan izandako aldaketak, familiaren osaera eta egitura eragin dutenak. Horrela, familiak izandako aldaketen artetik nabarmenena familiaren tamainak ezagutu duen murrizketa azpimarratu beharko litzateke: 1996an 3,05 kidek osatzen zuten, batez beste, familia bat, eta 2001ean 2,76 kidek.

Hala ere, bakarrik bizi den pertsona-kopuruak ezagutu du hazkunderik handiena. Bakarrik bizi diren pertsonen artean aurkituko ditugu 65 urtetik gorako pertsona asko, eta batez ere emakumeak. Zehazkiago, familia-etxebizitzatan erroldatutako 65 urtetik gorako emakumeen %24,33 bakarrik bizi dira, gizonak %8,85 diren bitartean. Adierazle horrek eragin handia du pertsonen bizitzan, eta adineko pertsonek, eta be-

reziki adineko emakumeek, bizi duten bakardadea eta isolamendua ulertzeko balio du.

**2.11 TAULA Familia-etxebizitzatan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonak familia-egitura eta sexuaren arabera**

| | BI SEXUAK | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| 65 urte edo gehiagoko emakumea | 50.973 | 0 | 50.973 |
| 65 urte edo gehiagoko gizona | 13.473 | 13.473 | 0 |
| Emakume heldua, adin-txikiko batekin edo gehiagorekin | 215 | 0 | 215 |
| Gizon heldua, adin-txikiko batekin edo gehiagorekin | 59 | 59 | 0 |
| Bi pertsona heldu, batek gutxienez 65 urte edo gehiago, adin-txikikorik gabe | 146.922 | 67.149 | 79.773 |
| Bi pertsona heldu eta adin-txikiko bat | 1.428 | 488 | 940 |
| Bi pertsona heldu eta bi adin-txikiko | 403 | 132 | 271 |
| Bi pertsona heldu eta hiru adin-txikiko edo gehiago | 58 | 16 | 42 |
| 35 urte edo gehiagoko bi pertsona heldu, 16-34 urtekoa bat adin-txikikorik gabe | 28.855 | 16.333 | 12.522 |
| 35 urte edo gehiagoko bi pertsona heldu, 16-34 urtekoa bat eta adin-txikiko bat | 1.191 | 494 | 697 |
| 35 urte edo gehiagoko bi pertsona heldu, 16-34 urtekoa bat eta bi adin-txikiko edo gehiago | 404 | 150 | 254 |
| Hiru pertsona helduren familia, adin-txikikoekin edo gabe | 52.255 | 22.912 | 29.343 |
| 35 urte edo gehiagoko bi pertsona heldu, bi 16-34 urte bitartekoak, adin-txikikorik gabe | 8.474 | 5.477 | 2.997 |
| 35 urte edo gehiagoko bi pertsona heldu, bi 16-34 urte bitartekoak eta adin-txikiko bat | 619 | 328 | 291 |
| **GUZTIRA** | **361.740** | **152.229** | **209.511** |

ITURRIA: INE, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

EAEko adineko pertsona gehienak, 361.740 pertsona zehazkiago, familia-etxebizitzatan bizi dira. EUSTATek zentzu horretan egindako azterketak baieztatu duenez, denbora gehiago bizi dira adineko biztanleak beren etxebizitzan.

Familien tamainari dagokionez, adineko pertsonen erdiak baino gehiagok pertsona bakarreko edo bi pertsonako familiak osatzen dituzte. Gero eta gutxiago dira beste pertsona batzuekin edo senideekin bizi diren adineko pertsonak.

## 2.12. TAULA 65 urtetik gorako pertsonen familien tamaina

| TAMAINA | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| Kide 1 | 64.446 | 13.473 | 50.973 |
| 2 kide | 147.149 | 67.203 | 79.946 |
| 3 kide | 77.320 | 38.063 | 39.257 |
| 4 kide | 36.971 | 17.817 | 19.154 |
| 5 kide | 21.105 | 8.845 | 12.260 |
| 6 kide | 9.929 | 4.503 | 5.426 |
| 7 kide | 2.957 | 1.434 | 1.523 |
| 8 kide | 1.022 | 481 | 541 |
| 9 kide | 439 | 212 | 227 |
| 10 kide edo gehiago | 402 | 198 | 204 |
| **GUZTIRA** | **361.740** | **152.229** | **209.511** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak, 2001.

*— 65 urtetik gorako emakumeen laurden bat bakarrik bizi dira.*
*— Gehiago dira bikotekidearekin edo senideekin bizi diren gizonak.*

# ADINEKO BIZTANLERIA ATZERRITARRA 2.3

2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, EAEko 65 urtetik gorako biztanle atzerritarren multzoa 1.209 pertsonak osatzen dute, hau da, guztizko biztanle-

ria atzerritarraren %3,88. Sexuen araberako banaketa bat dator biztanleriak orokorrean duen banaketarekin: emakumeak gehiengoa dira, adineko biztanleria atzerritarraren %57,2 hartuz. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da EAEko atzerritar asko eta asko legez kanpo daudela gurean eta, ondorioz, oso zaila da biztanleria atzerritarraren ezaugarriak eta joera nagusiak zehazteko datu fidagarriak lortzea.

Adina funtsezko aldagaia dugu biztanleria atzerritarraren azterketa egiteko. Funtsean, atzerriko biztanleriaren belaunaldi gazteak edo tarteko belaunaldiak eragiten dituen fenomeno bat da emigrazioa, hortaz, agerpen eskasa dute adineko pertsonek biztanleria atzerritarraren baitan. Lehen esan dugunez, emakumeak dira gehiengoa, eta adinaren piramidean gora egin ahala are gehiago ugaritzen dira. Horrenbestez, atzerriko biztanleriak ere ezagutzen du zahartzaroaren feminizazioa izenez ezagutzen dugun fenomenoa.

**2.13. TAULA Adineko biztanleria atzerritarra adinaren arabera (bost urteko taldeak). Portzentaje horizontalak. 2001**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| 65-69 | 397 | 215 | 54,2 | 182 | 45,8 |
| 70-74 | 302 | 155 | 51,3 | 147 | 48,7 |
| 75-79 | 205 | 121 | 59,0 | 84 | 41,0 |
| 80-84 | 150 | 97 | 64,7 | 53 | 35,3 |
| 85-89 | 98 | 61 | 62,2 | 37 | 37,8 |
| 90-94 | 47 | 35 | 74,5 | 12 | 25,5 |
| 95-99 | 8 | 5 | 62,5 | 3 | 37,5 |
| 100 urte edo gehiago | 2 | 2 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| **Guztira 65 urtetik gorakoak** | **1.209** | **691** | **57,2** | **518** | **42,8** |
| **Guztira biztanleria atzerritarra** | **31.168** | **15.777** | **50,6** | **15.391** | **49,4** |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

Erroldatutako pertsona atzerritarren jatorria kontuan hartuta azterketa sakonago bat egin ahal izango dugu. Eskuarki, EAEko biztanleria atzerritarra Amerikatik etorria da, bigarrenik Europatik eta neurri txikiago batean Afrikatik. Hala ere, datu horiek modu desberdinean islatzen dira emakumeen eta gizonen artean.

Adineko biztanleriari dagokionez, erdia baino gehiago Europatik etorriak dira, heren bat Amerikatik eta dezente gutxiago dira Afrikatik etorritakoak. Ez da adineko emakume eta gizonen arteko desberdintasun azpimarragarririk ikusi jatorriari erreparatuz.

## 2.14. TAULA Adineko biztanleria atzerritarra kontinentearen eta Lurralde Historikoaren arabera. 2001

| | BIZTANLERIA ATZERRITARRA GUZTIRA | | | 65 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA ATZERRITARRA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| **EAE** | | | | | | |
| Guztira | 31.168 | 15.391 | 15.777 | 1.209 | 518 | 691 |
| Europa | 9.636 | 5.326 | 4.310 | 648 | 280 | 368 |
| Afrika | 5.742 | 3.849 | 1.893 | 89 | 41 | 48 |
| Amerika | 14.248 | 5.386 | 8.862 | 421 | 172 | 249 |
| Asia | 1.460 | 779 | 681 | 41 | 19 | 22 |
| Ozeania | 80 | 50 | 30 | 10 | 6 | 4 |
| Herrigabeak | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| **Araba** | | | | | | |
| Guztira | 6.114 | 3.194 | 2.920 | 129 | 40 | 89 |
| Europa | 1.725 | 986 | 739 | 51 | 15 | 36 |
| Afrika | 1.635 | 1.124 | 511 | 21 | 9 | 12 |
| Amerika | 2.547 | 978 | 1.569 | 54 | 15 | 39 |
| Asia | 205 | 106 | 99 | 3 | 1 | 2 |
| Ozeania | 2 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| Herrigabeak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

**2.14. TAULA** **Adineko biztanleria atzerritarra kontinentearen eta Lurralde Historikoaren arabera. 2001 (jarraipena)**

| | BIZTANLERIA ATZERRITARRA GUZTIRA | | | 65 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA ATZERRITARRA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| **Gipuzkoa** | | | | | | |
| Guztira | 9.464 | 4.702 | 4.762 | 511 | 220 | 291 |
| Europa | 4.169 | 2.261 | 1.908 | 344 | 147 | 197 |
| Afrika | 1.422 | 905 | 517 | 29 | 15 | 14 |
| Amerika | 3.523 | 1.343 | 2.180 | 121 | 49 | 72 |
| Asia | 323 | 177 | 146 | 16 | 9 | 7 |
| Ozeania | 26 | 15 | 11 | 1 | 0 | 1 |
| Herrigabeak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **Bizkaia** | | | | | | |
| Guztira | 15.590 | 7.495 | 8.095 | 569 | 258 | 311 |
| Europa | 3.742 | 2.079 | 1.663 | 253 | 118 | 135 |
| Afrika | 2.685 | 1.820 | 865 | 39 | 17 | 22 |
| Amerika | 8.178 | 3.065 | 5.113 | 246 | 108 | 138 |
| Asia | 932 | 496 | 436 | 22 | 9 | 13 |
| Ozeania | 52 | 35 | 17 | 9 | 6 | 3 |
| Herrigabeak | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

Europar Batasunetik etorritako biztanleria atzerritarrari dagokionez, kontuan hartu beharreko hainbat joera ikus daitezke. Horrela, gehiago dira emakumeak Europar Batasunetik etorritako adineko pertsona atzerritarren artean, baina gainerako adin-tarteetan ez da gauza bera gertatzen. Emakume atzerritar zaharrenak Frantziatik (%33,1), Portugaldik (%30,69) eta, neurri txikiago batean, Alemania (%13,06) eta Italiatik (%10,33) etorri dira. Bestalde, Europar Batasunetik etorritako adin bereko gizon atzerritarren jatorriari erreparatuz, antzeko emaitzak lortu dira: Portugal (%25,47); Frantzia (%23,95) eta Italia (%15,96).

## 2.15. TAULA Europar Batasuneko biztanleria atzerritarra nazionalitatearen arabera. 2001

| | BIZTANLERIA ATZERRITARRA GUZTIRA | | | 65 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA ATZERRITARRA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| **Guztira** | **31.168** | **15.391** | **15.777** | **1.209** | **518** | **691** |
| Europa | 9.636 | 5.326 | 4.310 | 648 | 280 | 368 |
| **Europar Batasuna** | **7.824** | **4.424** | **3.400** | **592** | **263** | **329** |
| Austria | 27 | 15 | 12 | 2 | 2 | 0 |
| Belgika | 153 | 90 | 63 | 28 | 13 | 15 |
| Danimarka | 29 | 15 | 14 | 2 | 1 | 1 |
| Finlandia | 21 | 6 | 15 | 0 | 0 | 0 |
| Frantzia | 1.241 | 567 | 674 | 172 | 63 | 109 |
| Grezia | 19 | 12 | 7 | 1 | 1 | 0 |
| Irlanda | 209 | 121 | 88 | 6 | 3 | 3 |
| Italia | 575 | 380 | 195 | 75 | 42 | 33 |
| Luxenburgo | 4 | 2 | 2 | 1 | 1 | 0 |
| Herbehereak | 122 | 79 | 43 | 2 | 2 | 0 |
| Portugal | 3.512 | 1.997 | 1.515 | 168 | 67 | 101 |
| Erresuma Batua | 973 | 589 | 384 | 52 | 30 | 22 |
| Alemania | 870 | 512 | 358 | 80 | 37 | 43 |
| Suedia | 69 | 39 | 30 | 3 | 1 | 2 |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

*— Biztanleria atzerritarraren %3,88 bakarrik dira 65 urtetik gorako pertsonak.*
*— Emakumeak dira EAEko adineko pertsona atzerritarren %57,2.*
*— Adineko biztanle atzerritarren erdiak baino gehiagok jatorri europarra dute.*

# HEZKUNTZA--MAILA ETA EUSKARA 2.4

Inguruan ditugun gizarteen ezaugarri bat da biztanleen ikasketa-maila gero eta hobea dela. Horren ildotik, esparruan egin diren azterlan gehienek baieztatu dute goiko mailatan portzentajeek gora egiten dutela eta beheko mailatan, aitzitik, murriztu egiten direla.

Biztanleriaren heziketa-maila aztertuz lortuko dugun beste ondorio bat da, heziketamaila baxuenetan emakume-kopuruak gainditu egiten duela gizon-kopurua, eta goiko kategoriatan, aitzitik, gehiago dira gizonak eskuarki. Aipatutako datuak aztertzeko adina kontuan hartuz gero, argi ikus daiteke adinean gora egin ahala gero eta handiagoa dela bi sexuen arteko aldea.

Aipatutako joera guztiak bete egiten dira 65 urtetik gorako pertsonen kasuan. Adin horretako emakume gehienak hezkuntza-maila baxuenetan sailkatzen dira (analfabetoak, ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak); hain zuzen, %76,19 sailkatzen dira kategoria horietan, gizonak %65,9 diren bitartean. Bereziki azpimarragarria da, zentzu horretan, 65 urtetik gorako emakumeen artean erregistratu den analfabetismo-tasa altua (%3,32), gizonena bikoiztuz (%1,66).

*— 65 urtetik gorako emakumeen analfabetismo-tasa %3,74 izan zen 2001ean.*
*— 65 urtetik gorako gizonen analfabetismo-tasa %1,66 izan zen 2001ean.*

Sexuen arteko desberdintasunak nabarmen geratzen dira, halaber, lanbide-heziketako ikasketak eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak aztertuz; bietan altuagoak dira gizonen ehunekoak. Edozein modutan, oso gutxi dira aipatutako ikasketak dituzten adineko pertsonak. Horrela, adineko gizonen %5,74k eta emakumeen %1,64k

dituzte lanbide-ikasketak; eta gizonen %6,61ek eta emakumeen %2,56k dituzte goi-mailako ikasketak.

**2.16. TAULA 65 urtetik gorako biztanleria EAEn ikasketa-mailaren arabera. Portzentaje bertikalak. 2001**

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 2.523 | 1,66 | 7.846 | 3,74 |
| Ikasketarik gabe | 28.396 | 18,65 | 47.920 | 22,87 |
| Lehen mailako ikasketak | 69.409 | 45,59 | 103.856 | 49,58 |
| DBH, OHO, Oinarrizko Batxilergoa | 27.719 | 18,21 | 36.019 | 17,19 |
| Goi-mailako Batxilergoa | 5.392 | 3,54 | 5.054 | 2,42 |
| LH erdiko maila | 4.147 | 2,72 | 2.325 | 1,11 |
| LH goi-maila | 4.603 | 3,02 | 1.106 | 0,53 |
| Diplomatura | 4.331 | 2,85 | 3.913 | 1,86 |
| Lizentziatura | 4.863 | 3,20 | 1.384 | 0,66 |
| Doktoretza | 846 | 0,56 | 88 | 0,04 |
| **GUZTIRA** | **152.229** | **100,00** | **209.511** | **100,00** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Adineko pertsona atzerritarren hezkuntza-mailari buruzko estatistikek antzeko joerak jarraitzen dituzte. Biztanleria atzerritarraren guztizkoaren hezkuntza-maila eta 65 urtetik gorako pertsonena nabarmenki desberdinak dira. Adineko pertsonek indize altuagoak erregistratu dituzte pertsona analfabetoen, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak dituztenen artean. Bien arteko aldea nabarmenagoa da adineko emakumeen kasuan, izan ere, adineko gizonek nabarmenki gainditzen dituzte, baina batez ere beste adin batzuetako emakume atzerritarren indizeak gainditzen dituzte.

Hain zuzen, emakumeek eskuarki erakutsitako hezkuntza-maila baxuagoak areagotu egiten dira 65 urtetik gorako emakume atzerritarren kasuan. Aipatutakoa ikusteko analfabetismo-tasari erreparatu besterik ez dago: 65 urtetik gorako emakumeek, oro har, %3,74ko tasa dute, eta adin bereko emakume atzerritarrek, berriz, %10,2koa.

**2.17. TAULA Adineko biztanleria atzerritarra familia-etxebizitzatan, adinaren eta hezkuntza-mailaren arabera. Kopuru absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2001**

| | GUZTIRA | PERTSONA ANALFABETOAK | IKASKETARIK GABEKO PERTSONAK | LEHEN MAILAKO IKASKETAK | BIGARREN MAILAKO IKASKETAK: DBH, OHO, OINARRIZKO BATXILERGOA | BIGARREN MAILAKO IKASKETAK: GOI-MAILAKO BATXILERGOA | BIGARREN MAILAKO IKASKETAK: LH ERDI MAILA | BIGARREN MAILAKO IKASKETAK: LH GOI-MAILA | HIRUGARREN MAILAKO IKASKETAK: DIPLOMATURA | HIRUGARREN MAILAKO IKASKETAK: LIZENTZIATURA | HIRUGARREN MAILAKO IKASKETAK: DOKTORETZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BI SEXUAK | | | | | | | | | | | |
| **Guztira biztanleria atzerritarra** | **25.895** | **2,3** | **6,8** | **19,8** | **25,0** | **18,0** | **4,1** | **5,5** | **6,8** | **10,7** | **1,0** |
| 65-74 | 679 | 9,1 | 15,5 | 25,8 | 17,1 | 9,6 | 2,0 | 3,0 | 9,4 | 7,7 | 0,8 |
| 75-84 | 338 | 8,6 | 13,8 | 32,1 | 18,0 | 10,4 | 1,5 | 2,8 | 6,7 | 5,8 | 0,3 |
| 85 edo gehiago | 142 | 8,0 | 13,0 | 31,2 | 18,8 | 13,8 | 0,7 | 2,2 | 5,8 | 6,5 | 0,0 |
| GIZONAK | | | | | | | | | | | |
| Guztira biztanleria atzerritarra | 12.584 | 2,2 | 7,0 | 20,1 | 24,4 | 16,2 | 4,6 | 6,2 | 6,6 | 11,5 | 1,2 |
| 65-74 | 323 | 6,3 | 13,3 | 25,6 | 17,7 | 8,2 | 1,9 | 3,8 | 9,2 | 12,7 | 1,3 |
| 75-84 | 135 | 3,1 | 9,2 | 31,3 | 19,8 | 10,7 | 1,5 | 3,8 | 9,9 | 10,7 | 0,0 |
| 85 edo gehiago | 50 | 10,4 | 6,2 | 12,5 | 18,7 | 22,9 | 2,1 | 4,2 | 8,3 | 14,6 | 0,0 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | | | | |
| Guztira biztanleria atzerritarra | 13.311 | 2,5 | 6,6 | 19,5 | 25,6 | 19,6 | 3,7 | 4,9 | 7,0 | 9,9 | 0,7 |
| 65-74 | 356 | 11,7 | 17,5 | 25,9 | 16,6 | 10,8 | 2,0 | 2,3 | 9,6 | 3,2 | 0,3 |
| 75-84 | 203 | 12,2 | 16,8 | 32,7 | 16,8 | 10,2 | 1,5 | 2,0 | 4,6 | 2,6 | 0,5 |
| 85 edo gehiago | 92 | 6,7 | 16,7 | 41,1 | 18,9 | 8,9 | 0,0 | 1,1 | 4,4 | 2,2 | 0,0 |

ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001. INE.

Jatorri atzerritarra duten adineko emakume eta gizonen hezkuntza-mailaren arteko desberdintasuna deigarriagoa da, izan ere, beste adin-tarteetan ez da ia inolako desberdintasunik eman. Hain zuzen, 65 urtetik beherako emakume eta gizon atzerritarrek antzeko hezkuntza-mailak erakutsi dituzte.

*— 65 urtetik gorako emakume atzerritarren analfabetismo-tasa %10,2koa da.*
*— Adin guztietako emakume atzerritarren analfabetismo-tasa %2,5ekoa izan zen 2001ean.*

Biztanleria bere osotasunean hartuta, eta euskararen ezagutza-mailari erreparatuz, bereziki azpimarragarria da oso antzekoak direla emakumeek eta gizonek erakutsitako mailak, nahiz eta pertsona zaharrenen artean joera desberdinak bereizi ahal diren. Adineko biztanleriaren erdiak baino gehiagok adierazi dutenez, ez dute euskara ulertzen; biztanleriaren heren batek adierazi dute ulertzen dutela eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten dakitela. Datu horiek beste adin batzuetako biztanleriarekin alderatuz esan daiteke gehiagok ezagutzen dutela euskara, nahiz eta ezinezkoa zaigun emakumeekin eta gizonekin erlazionatutako ondorio zehatzik lortzea.



## 2.18. TAULA Euskararen ezagutza-maila 65 urtetik gorako pertsonen artean

| | GIZONAK | | | | EMAKUMEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | 65 URTETIK GORAKO GIZONAK | | | GUZTIRA | 65 URTETIK GORAKO EMAKUMEAK | | |
| | GIZ. | 65-74 | 75-84 | > 85 | EMAK. | 65-74 | 75-84 | > 85 |
| Ez du ulertzen | 43,67 | 65,67 | 63,64 | 61,47 | 43,23 | 66,80 | 63,81 | 43,23 |
| Ulertu bakarrik egiten du | 4,21 | 3,23 | 2,53 | 2,07 | 3,49 | 2,86 | 2,44 | 3,49 |
| Ulertzen du eta irakurtzen daki | 0,97 | 0,39 | 0,21 | 0,15 | 0,79 | 0,25 | 0,16 | 0,79 |
| Ulertzen du eta hitz egiten daki | 4,66 | 3,30 | 3,86 | 4,59 | 4,49 | 3,47 | 4,47 | 4,49 |
| Ulertzen du eta hitz egiten eta irakurtzen daki | 1,48 | 2,11 | 2,40 | 2,41 | 1,42 | 2,27 | 2,70 | 1,42 |
| Ulertzen du eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten daki | 45,09 | 25,30 | 27,16 | 29,31 | 46,58 | 24,35 | 26,42 | 26,11 |
| **GUZTIRA** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Oharra: Adin guztietako bi sexuetako pertsona guztiak barne hartzen dira Guztira kontzeptuan.

# 3

# ADINEKO BIZTANLERIAREN ERRENTA ETA GIZARTE BAZTERKERIA

Errenta eta erosteko ahalmena aldatu egiten dira pertsonaren sexuaren eta adinaren arabera. Adineko emakumeek eta gizonek ekoizpen-jarduerarekin edo errentarekin erlazioan bizi duten errealitatea islatzeko adierazleak aurkitzea zaila bada ere, behar-beharrezkoa da gogoeta orokorra egitea, hartara, adineko emakume eta gizon askok bizi duten gizarte-bazterkeria eragiten duten zenbait arrazoi ezagutu ahal izateko.

## JARDUERA ETA ERRENTA 3.1

Begi-bistakoa da 65 urtetik gorako pertsonek ekoizpen-jarduerarekin duten erlazioa eta gazteek dutena desberdinak direla. Gehienek amaitutzat jo dute beren lan-etapa eta gehienak pentsiodunak dira, eta egoera horrek, hots, pentsiodun izateak, pertsona horien errenta eta erosteko ahalmena mugatzen eta aldatzen ditu.

Adin-tarte honetan nabarmen geratzen dira sexuen arteko desberdintasunak. Horrela, gizonen %94,42 pentsiodunak diren bitartean, emakumeen artean %63,28 bakarrik dira pentsiodunak. Hala ere, desberdintasun hori ez dator bat emakumeen lan-tasa altuekin, baizik eta soldatarik gabe lan egiten duten emakumeen portzentaje altuarekin. Ildo horretan, 65 urtetik gorako emakumeen ia heren bat etxeko lanekin erlazionatutako kategorian sailkatzen da.

Gizon eta emakume pentsiodunen artean ere joera desberdinduak ikus daitezke. 65 urtetik gorako gizonen %89,21 erretiroagatiko pentsiodunak dira; kategoria horretan sailkatutako emakumeak, bestalde, %27,21 dira. Bestalde, emakumeak dira gehiengoa alarguntza-pentsioak jasotzen dituzten pertsonen artean.

**3.1. TAULA 64 urtetik gorako pertsonek jarduerarekin duten lehentasunezko erlazioa. Portzentaje bertikalak**

| JARDUERAREKIKO ERLAZIOA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| Ikasleak | 511 | 0,34 | 1.317 | 0,62 |
| Lanean ari direnak | 4.488 | 2,95 | 4.165 | 1,99 |
| Lehenago lan egin duten langabetuak | 172 | 0,11 | 221 | 0,10 |
| Ezintasun-pentsiodunak | 6.627 | 4,35 | 4.474 | 2,14 |
| Alarguntza- eta zurztasun--pentsiodunak | 1306 | 0,86 | 71.078 | 33,93 |
| Erretiro-pentsiodunak | 135.808 | 89,21 | 56.996 | 27,21 |
| Etxeko lanak egiten ditu edo laguntzen du | 1840 | 1,21 | 66.058 | 31,53 |
| Beste hainbat egoera | 1477 | 0,97 | 5.202 | 2,48 |
| **GUZTIRA** | **152.229** | **100,00** | **209.511** | **100,00** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Egoera batetik bestera soldata-mailako desberdintasunak eta erosteko ahalmenarekin erlazionatutakoak ikus daitezke eta eragin zuzena dute desberdintasun horiek, adineko emakume askok bizi duten pobretasun eta gizarte-bazterkerian.

*— Adineko gizonen %89,21ek erretiroagatiko pentsioa jasotzen dute.*
*— Adineko emakumeen %27,21ek bakarrik jasotzen dute erretiroagatiko pentsioa.*
*— Gainerakoak soldatarik gabeko etxeko andreak (%31,53) dira edo alarguntza-pentsioa kobratzen dute (%33,93).*

Nahiz eta azken urteetan pentsioek aldaketa txikiak ezagutu, EAEko batez besteko alarguntza-pentsioa (405,85 euro) erretiroagatiko pentsioaren erdia baino pixka bat

gehiago da (737,12 euro). Hain zuzen, azken hamarkadan izandako hazkundea zertxobait handiagoa izan da erretiroagatiko pentsioen kasuan.

**3.2. TAULA Batez besteko erretiro- eta alarguntza-pentsioa (hileroko eurotan) eta bilakaera-indizea 1992-2001**

| | ERRETIRO-PENTSIOA | | ALARGUNTZA-PENTSIOA | |
|---|---|---|---|---|
| | EURO | INDIZEA | EURO | INDIZEA |
| 1992 | 464,42 | 100,0 | 268,80 | 100,0 |
| 1993 | 499,57 | 107,6 | 286,11 | 106,4 |
| 1994 | 514,88 | 110,9 | 291,09 | 108,3 |
| 1995 | 553,15 | 119,1 | 308,65 | 114,8 |
| 1996 | 591,49 | 127,4 | 327,71 | 121,9 |
| 1997 | 612,77 | 131,9 | 341,45 | 127,0 |
| 1998 | 638,03 | 137,4 | 353,20 | 131,4 |
| 1999 | 656,31 | 141,3 | 362,41 | 134,8 |
| 2000 | 696,86 | 150,0 | 384,40 | 143,0 |
| 2001 | 737,12 | 158,7 | 405,85 | 151,0 |

ITURRIA: Eustat. Gizarte Segurantzako Zuzendaritza Orokorra.

Bi sexuen arteko desberdintasunak nabarmen geratzen dira, halaber, 65 urtetik gorako gizon eta emakumeen batez besteko errenta pertsonala aztertuz gero. Zentzu horretan, lehenik eta behin kontuan hartu behar da 60 urtetik aurrera beherakada nabarmena duela gizonen eta emakumeen batez besteko errentak. Batez besteko errentari dagokionez, EAEko 65 urtetik gorako gizonek guztira 10.540 euroko batez besteko errenta lortu zuten, adin bereko emakumeek lortutako errenta bikoiztuz (5.494 euro). Guztizko errentaren osaera aztertuz, bestalde, sexuen arteko desberdintasunak ikus daitezke; horrela, gizonen eta emakumeen errenta desberdinak ulertzeko kontuan hartu behar da laneko errentak eta lan-merkatuaren baitan garatzen diren jarduerak desberdinak direla gizonen kasuan eta emakumeen kasuan.

**3.3. TAULA** **Batez besteko errenta pertsonala (eurotan) adinaren, sexuaren eta errenta-motaren arabera. 1997**

| | GUZTIRA | | | | GIZONAK | | | | EMAKUMEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Errenta guztira | Laneko errenta | Kapitalaren errenta | Jardueraren errenta | Errenta guztira | Laneko errenta | Kapitalaren errenta | Jardueraren errenta | Errenta guztira | Laneko errenta | Kapitalaren errenta | Jardueraren errenta |
| 65-69 | 9.075 | 7.492 | 1.274 | 288 | 13.216 | 11.537 | 1.232 | 425 | 5.269 | 3.775 | 1.312 | 161 |
| 70-74 | 8.506 | 7.023 | 1.315 | 147 | 12.073 | 10.563 | 1.267 | 223 | 5.595 | 4.136 | 1.354 | 85 |
| 75-79 | 8.003 | 6.481 | 1.413 | 90 | 11.079 | 9.507 | 1.429 | 120 | 5.929 | 4.440 | 1.403 | 69 |
| 80-84 | 6.991 | 5.520 | 1.392 | 71 | 9.248 | 7.675 | 1.489 | 80 | 5.801 | 4.385 | 1.341 | 66 |
| ⩾85 | 5.500 | 4.296 | 1.143 | 59 | 7.088 | 5.552 | 1.453 | 71 | 4.878 | 3.805 | 1.022 | 54 |

ITURRIA: Eustat. Errenta pertsonalaren eta familia-errentaren estatistika.

# POBREZIA ETA GIZARTE- -BAZTERKERIA 3.2

2000. urtean Eusko Jaurlaritzak landutako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren arabera, gehiago dira urritasun-egoerak bizi dituzten emakumeak gizonak baino EAEn. Hain zuzen, gizonen artean pobrezia-indizeak gutxitzen hasi diren bitartean, emakumeen indizeen kasuan kontrakoa gertatu da.

Aldagai garrantzitsua da adina pertsonek bizi dituzten pobrezia-egoerak edo ongizaterik eza ulertzeko. Inkestaren emaitzen arabera, U itxura duen eredu bati jarraitzen zaio, non bi muturretan eragin handiagoa duen pobreziak, hain zuzen pertsona gazteenen eta pertsona zaharrenen taldeetan. Zentzu horretan, 65 urtetik gorako biztanleen artean pobrezia-egoerarekin eta ongizaterik ezarekin erlazioan erregistratu diren indizeek euskal batez bestekoa gainditzen dute. Pobrezia larria bizi duten per-

tsonen indizeak batez bestekoa gainditu du, nahiz eta bien arteko desberdintasuna oso txikia den. Amaitzeko, adineko pertsonak familiaburu diren familien artetik %54,9 ondo bizi dira.

**3.4. TAULA Pobrezia eta ongizaterik eza pairatzeko arriskua duten egoerak, adinaren eta familiaburuaren arabera. 2000 (Portzentajeak)**

| | BATEZ BESTEKOA GUZTIRA | 65 URTE ETA GEHIAGO |
|---|---|---|
| Pobrezia larria | 5,5 | 6,4 |
| Ongizaterik eza | 28,8 | 45,1 |
| Ongizatea | 71,2 | 54,9 |

ITURRIA: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta, 2000.

Adineko biztanleriak bereganatzen du pobretasun larria bizi duten familien %39,2, eta adineko biztanleak dira, halaber, ongizaterik gabeko egoera gehien bizi dituzten biztanleak (%52,8).

**3.5. TAULA Pobrezia eta ongizaterik eza pairatzeko arriskua duten egoeren sailkapena familiaburuaren adinaren arabera. 2000 (Portzentajeak)**

| | 65 URTE ETA GEHIAGO |
|---|---|
| Pobrezia larria | 39,2 |
| Ongizaterik eza | 52,8 |
| Ongizatea | 26,1 |

ITURRIA: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta, 2000.

Kontuan hartu behar da, aipatutako datuek, familiaburuaren arabera pobrezia-egoerak bizi dituzten familiak barne hartzen dituztela. Hala ere, kasu askotan, adineko

pertsonak bizi diren familiatan beste pertsona bat izaten da familiaburu eta, horrelakoetan, litekeena da pobrezia-egoera asko estalita geratzea edo laguntza informalen bitartez arintzea.

Pobrezia larria edo ongizaterik eza dakarten egoerak "mantenu-pobrezia"ren baitan sailkatu dira. Mantenu-pobreziak egoera arriskutsuak edo benetako pobrezia-egoerak adierazten ditu. "Metatze-pobrezia"k, bestalde, gure gizarteak onartu beharko ez lituzkeen bizi-baldintza eskasak dakartzan pobrezia-egoerak adierazten ditu. Ildo horretan, mantenu-pobreziaren kronifikazioaren ondorioz sortzen da metatze-pobrezia; eta, oraingoan ere, 65 urtetik gorako pertsonak dira eta, batez ere emakumeak, egoera horrek gehien eragiten duen taldea. Edozein modutan, adineko pertsonen artean gutxiagotan gertatzen dira metatze-pobreziako egoerak mantenu-pobreziakoak baino, eragin-maila baxua erregistratuz (%1,4).

Aipatutako inkestan emaitzak laburbiltzeko orduan, talde homogeneoek osatutako pobrezia-tipologia aipatzen da, pertsonen adinaren eta sexuaren araberako ondorioak ezagutzea ahalbidetzen duena. Tipologia horrek arreta berezia jartzen du 65 urtetik gorako emakumeen taldean, pobreziak duen eragin handia azpimarratuz (12,4).

**3.6. TAULA Pobreziaren eragina (mantenu-pobrezia edo metatze-pobrezia) EAEn, familiaburuaren arabera. Portzentajeak. 2000**

| | |
|---|---|
| 1. MOTA: Lan egonkorra | 1,8 |
| 2. MOTA: lan ezegonkorra | 9,2 |
| 3. MOTA: langabezian dauden gizonak | 28,7 |
| 4. MOTA: langabezian dauden emakumeak | 59,8 |
| 5. MOTA: Gizonak <65 urte ez-aktiboak | 9,2 |
| 6. MOTA: Emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 18,4 |
| 7. MOTA: Gizonak >65 urte | 4,6 |
| 8. MOTA: Emakumeak >65 urte | 12,4 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI)

Gauzak horrela, 65 urtetik gorako emakumeak familiaburu diren familiek osatzen dute mantenu-pobreziari dagokionez tasarik altuenak erregistratu dituen taldea: 1996an %5,2 izatetik 2000. urtean %10,5era iritsi da. Ongizaterik ezarekin erlazionatutako egoerei erreparatuz, inkestaren arabera behera egin dute, talde guztietan, pobrezia-tasek, eta oraingoan ere salbuespen bakarra 65 urtetik gorako emakumeen taldea izan da: 1996an %47,3ko tasa zuen eta 2000. urtean %60ra iritsi da.

**3.7. TAULA Mantenu- eta metatze-pobreziaren bilakaera familiaburuaren arabera. Eragina portzentajeetan. 2000**

| | MANTENU-POBREZIA | | METATZE-POBREZIA | |
|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 1996 | 2000 |
| 1. MOTA: Lan egonkorra | 0,4 | 1,2 | 0,8 | 0,8 |
| 2. MOTA: lan ezegonkorra | 3,5 | 5,9 | 1,3 | 3,3 |
| 3. MOTA: langabezian dauden gizonak | 29,5 | 24,5 | 10,4 | 15,9 |
| 4. MOTA: langabezian dauden emakumeak | 44,0 | 59,8 | 8,8 | 25,5 |
| 5. MOTA: Gizonak <65 urte ez-aktiboak | 5,4 | 6,5 | 0,9 | 4,7 |
| 6. MOTA: Emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 18,6 | 17,0 | 2,9 | 2,8 |
| 7. MOTA: Gizonak >65 urte | 4,4 | 3,6 | 1,4 | 1,0 |
| 8. MOTA: Emakumeak >65 urte | 5,2 | 10,5 | 2,1 | 1,9 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta 2000.

Pobrezia-tasen bilakaerak berebiziko eragina du mantenu-pobrezia pairatzen duten familien barne-egituran. 65 urtetik gorako emakumeak familiaburu diren familiak familia pobre guztien %26,4 dira 2000. urtean. Hain zuzen, emakume-talde hori da mantenu-pobrezia jasaten duten taldeen artetik lehenengoa, langabezian dauden pertsonen taldea eta 65 urtetik beherako pertsona ez-aktiboen taldea gaindituz.

## 3.8. TAULA Mantenu- eta metatze-pobreziaren banaketa tipologikoa. Portzentajetan. 2000

| | MANTENU-POBREZIA | METATZE-POBREZIA |
|---|---|---|
| 1. MOTA: Lan egonkorra | 9,9 | 16,1 |
| 2. MOTA: lan ezegonkorra | 6,3 | 9,1 |
| 3. MOTA: langabezian dauden gizonak | 10,3 | 17,1 |
| 4. MOTA: langabezian dauden emakumeak | 10,4 | 11,4 |
| 5. MOTA: Gizonak <65 urte ez-aktiboak | 9,8 | 18,1 |
| 6. MOTA: Emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 14,1 | 6,0 |
| 7. MOTA: Gizonak >65 urte | 12,8 | 9,6 |
| 8. MOTA: Emakumeak >65 urte | 26,4 | 12,6 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

*— Adineko pertsonak familiaburu diren familien %54,9k bakarrik lortu dute ongizatea.*

*— Mantenu-pobreziari eta ongizaterik ezari dagokienez, ugaritu egin dira horrelako egoerak bizi dituzten 65 urtetik gorako emakumeak.*

*— Familia pobreen %26,4ren kasuan, 65 urtetik gorako emakumeak dira familiaburu.*



# 4

# ADINEKO PERTSONEN DENBORA

Eguneroko jarduerak garatzeko denborari ematen zaion banaketak islatzen ditu, modu zehatzean, emakumeen eta gizonen artean gizartean gertatzen diren desberdintasunak. EUSTATek aldiro lantzen duen Denbora Aurrekontuen Inkesta dugu, zentzu horretan, emakumeek eta gizonek beren denboraz baliatzeko duten modua aztertzeko bitarteko egokia.

Denboraren erabileraren azterketa bereziki lagungarria da adineko pertsonen taldea aztertzeko eta ezagutzeko, izan ere, gehienek ez dute soldatako lanik egiten jada eta, ondorioz, gainerako biztanleriak ez dituen ohiturak dituzte. Esparruan egindako azterlanen arabera, gero eta baldintza fisiko eta psikiko hobeagoak ditugu erretiroa hartzeko adina iristen denean eta, ondorioz, denboraz baliatzeko eta aisialdirako aukera berriak sortzen dira. Azken datuen arabera, 60 urtetik gorako biztanleriak bere denbora sozialaren 12 ordu eta 37 minutu erabiltzen ditu behar fisiologikoak eta zainketa pertsonalak egiteko, hau da, biztanleriaren guztizkoak baino ia berrogeita hamar minutu gehiago; era berean, 37 minutu dituzte, batez beste, soldatako lana egiteko eta/edo prestakuntza eskuratzeko (datu hori urrundu egiten da gainerako taldeek erabiltzen duten denborarekin alderatuta); 3 ordu eta 23 minutu etxeko lanak egiteko erabiltzen dituzte, 16 minutu zainketarekin erlazionatutako zereginetan eta sei ordutik gora, azkenik, aisialdirako, batez ere aisialdi pasiborako.

*— Adineko emakumeek batez beste 4 ordu eta 34 minutu erabiltzen dituzte etxeko lanak egiteko.*
*— Adineko gizonek ordu bat eta 47 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, etxeko lanak egiteko.*

Desberdintasunak ikusiko ditugu emakumeek eta gizonek beren denborari ematen dioten erabilerari erreparatuz. Horrela, adineko emakumeek bikoiztu edo hirukoiztu egiten dute gizonek etxeko lanak egiten igarotzen duten denbora edo pertsonak zaintzeko erabiltzen dutena. Gizonek, aitzitik, denbora gehiago dute aisialdi pasiborako eta aktiborako, eta lan profesionala garatzeko eta prestakuntza eskuratzeko.

*— Adineko emakumeek ordu bat eta 26 minutu dituzte, batez beste, aisialdi aktiborako.*
*— Adineko gizonek 2 ordu eta 9 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, aisialdi aktiborako.*

**4.1. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanleria parte-hartzaileak jarduera nagusiak egiten erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| Behar fisiologikoak | 11:50 | 11:51 | 11:48 | 12:37 | 12:55 | 12:25 |
| Lan profesionala eta prestakuntza- -denbora | 3:23 | 4:14 | 2.35 | 0:37 | 1:06 | 0:15 |
| Etxeko lanak | 2:23 | 1:10 | 3:31 | 3:23 | 1:47 | 4:34 |
| Familiako kideak zaintzea | 0:21 | 0:12 | 0:29 | 0:16 | 0:09 | 0:21 |
| Bizitza soziala | 0:58 | 1:04 | 0:52 | 0:50 | 0:56 | 0:46 |
| Aisialdi aktiboa: kirolak, PC eta Internet | 1:17 | 1:27 | 1:08 | 1:44 | 2:09 | 1.26 |
| Aisialdi pasiboa eta zaletasunak | 2.39 | 2:46 | 2:33 | 3:52 | 4:08 | 3:41 |
| Joan-etorriak | 1:08 | 1:14 | 1:03 | 0:39 | 0:49 | 0:31 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| Behar fisiologikoak | 11:50 | 11:51 | 11:48 | 12: 37 | 12:55 | 12:25 |
| Lan profesionala eta prestakuntza- -denbora | 6:58 | 7:22 | 6:25 | 5:15 | 6:12 | 3:32 |
| Etxeko lanak | 3:02 | 1:47 | 3:53 | 3:54 | 2:24 | 4:45 |
| Familiako kideak zaintzea | 1:46 | 1:22 | 1:59 | 1:45 | 1:20 | 1:56 |
| Bizitza soziala | 1:50 | 1:57 | 1:43 | 1:44 | 1:47 | 1:42 |
| Aisialdi aktiboa: kirolak, PC eta Internet | 2:09 | 2:22 | 2:47 | 2:26 | 2:46 | 2:49 |
| Aisialdi pasiboa eta zaletasunak | 2:54 | 3:02 | 1:25 | 3:59 | 4:12 | 3:50 |
| Joan-etorriak | 1:25 | 1:24 | 1:26 | 1:08 | 1:14 | 1:04 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Adineko pertsonek denborari ematen dioten erabilera aztertzeko orduan, kontuan hartu dira garatzen dituzten jarduera anitzak eta, horren arabera, hainbat azpitalde bereizi dira. Lehenengo atalean aisialdiarekin eta gizarte harremanekin erlazionatutako jarduerak barne hartu dira, hain zuzen adineko pertsonen denboraren zati handi bat betetzen duten jarduerak; bigarren atal batean, kirol-jarduerari eta ariketa fisikoari buruzko datuak barne hartu dira; hirugarren atalean adineko pertsonek prestakuntza-esparruan duten parte-hartzea eta, batez ere, teknologien munduarekin duten erlazioa barne hartu da; eta laugarren atal batean, adineko pertsonek elkartasunarekin eta zaintze-lanekin duten erlazioa islatu da. Amaitzeko, adineko pertsonen parte-hartze eta sinesmen erlijiosoari buruzko atal bat aipatzen da.

## AISIALDIA ETA GIZARTE--HARREMANAK 4.1

Gero eta garrantzi handiagoa du, gaur egungo gizartean, aisialdirako erabiltzen dugun denborak. Aisialdia, hau da, ondo pasatzeko, atseden hartzeko, gizarte-harremanak edukitzeko eta garapen pertsonala lortzeko erabiltzen dugun denborak, berebiziko garrantzia lortu du gaur egun. Aisialdiaz hitz egitean, alabaina, sexuaren eta adinaren araberako desberdintasunak ikus daitezke, bai bakoitzak duen aisialdiari erreparatuz, bai aisialdiaz baliatzeko moduari erreparatuz. Orain arte egindako azterlanen arabera, emakumeek, orokorrean, aisialdi gutxiago dute gizarteko ia testuinguru guztietan.

EUSTATek landutako Denbora Aurrekontuen Inkestak aisialdi aktiboa eta aisialdi pasiboa bereizten ditu. Aisialdi aktiboaren baitan sartzen dira kirola, ibilaldiak eta ordenagailuen erabilera eta teknologia berrien erabilera. Bestalde, aisialdi pasiboaren kontzeptuaren baitan barne hartzen dira prentsa irakurtzea, telebista ikustea, ikuski-

zunak, eta abar. Eta bi kontzeptu horien arteko bereizketak garrantzi handia hartzen du adineko emakumeek eta gizonek aisialdirako duten denbora aztertzean.

60 urtetik gorako pertsonek ordu bat eta 44 minutu erabiltzen dituzte aisialdi aktiborako, biztanleriaren guztizkoak erabiltzen duen denbora gaindituz (ordu bat eta 17 minutu). Zentzu horretan, joera desberdina agertu dute adineko emakumeek eta adineko gizonek. Gizonek denbora gehiago erabiltzen dute asteko egun guztietan, bai adineko biztanleriaren batez bestekoari erreparatuz, bai biztanleria parte-hartzaileari bakarrik erreparatuz. Horrela, adineko emakumeek ordu bat eta 26 minutu dituzte aisialdi aktiboarekin erlazionatutako jarduerak egiteko; gizonek 2 ordu eta 9 minutu dituzte. Gauza berdina baieztatuko dugu aisialdi aktiboarekin erlazionatutako jarduerak aztertuz gero (aurrerago egingo den moduan).

**4.2. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanleria parte-hartzaileak aisialdi aktiborako erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:17** | **1:27** | **1:08** | **1:44** | **2:09** | **1:26** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:03 | 1:07 | 0:59 | 1: 38 | 2:01 | 1:22 |
| Ostirala | 1:14 | 1:27 | 1:03 | 1: 44 | 2:10 | 1:25 |
| Larunbata | 1:44 | 2:05 | 1:24 | 1: 56 | 2:26 | 1:32 |
| Igandea | 1:49 | 2:09 | 1:30 | 1:55 | 2:23 | 1:36 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:09** | **2:22** | **1:55** | **2: 26** | **2:46** | **2:09** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:55 | 2:03 | 1:47 | 2:21 | 2:39 | 2:05 |
| Ostirala | 2:05 | 2:22 | 1:49 | 2:32 | 3:00 | 2:09 |
| Larunbata | 2:34 | 2:55 | 2:11 | 2:33 | 3:01 | 2:08 |
| Igandea | 2:31 | 2:47 | 2:14 | 2:36 | 2:45 | 2:27 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Adin guztietako biztanleria bere osotasunean hartua, 2 ordu eta 39 minutu erabiltzen dituzte aisialdi pasiborako: prentsa, telebista, ikuskizunak, jolasak, eta abar. Portzentaje hori zertxobait altuagoa da 60 urtetik gorako pertsonen artean: egunean 3 ordu eta 52 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, mota horretako jarduerak egiteko. Adin-tarte horretan berriro geratzen dira agerian emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak: adineko emakumeek 3 ordu eta 41 minutu dituzte aisialdi pasiborako eta gizonek, berriz, 4 ordu eta 8 minutu. Garrantzi handiagoa bereganatzen du aisialdi pasiboak asteburua iristean, eta orduan ere, gizonak ateratzen dira garaile.

**4.3. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanleria parte-hartzaileek aisialdi pasiborako eta zaletasunak garatzeko erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:39** | **2:46** | **2:33** | **3:52** | **4:08** | **3:41** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:27 | 2:30 | 2:25 | 3:48 | 3:53 | 3:45 |
| Ostirala | 2:29 | 2:33 | 2:26 | 3:52 | 4:30 | 3:24 |
| Larunbata | 2:56 | 3:12 | 2:42 | 3:53 | 4:33 | 3:22 |
| Igandea | 3:21 | 3:41 | 3:03 | 4:07 | 4.22 | 3:57 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:54** | **3:02** | **2:47** | **3:59** | **4:12** | **3:50** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:41 | 2:45 | 2:37 | 3:53 | 3:55 | 3:52 |
| Ostirala | 2:48 | 2:52 | 2:44 | 4:01 | 4:33 | 3.36 |
| Larunbata | 3:11 | 3:27 | 2:55 | 4:04 | 4:39 | 3:36 |
| Igandea | 3:36 | 3:51 | 3:22 | 4:18 | 4:29 | 4:10 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Adineko pertsonek garatzen dituzten aisialdi pasiboko jardueren artean garrantzitsuenak dira, zalantzarik gabe, irakurketa, telebista ikustea eta irratia entzutea. Adineko biztanleriak biztanleriaren guztizkoak baino indize altuagoak erregistratu ditu horietan guztietan. Adineko gizonak dira, oraingoan ere, beren denboraren portzentaje handiena horrelako jardueretan ematen dutenak. Adineko emakumeek beren denboraren ordu bat eta 26 minutu erabiltzen dituzte horrelakoak egiteko eta 2 ordu eta 9 minutu erabiltzen dituzte adineko gizonek.

**4.4. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanleria parte-hartzaileak irakurtzeko, telebista ikusteko eta irratia entzuteko erabilitako batez besteko ordu--kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**



| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:05** | **2:11** | **2:00** | **3:02** | **3:16** | **2:52** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:59 | 2:01 | 1:56 | 2:58 | 3:05 | 2:53 |
| Ostirala | 1:56 | 1:59 | 1:53 | 3:05 | 3:32 | 2:45 |
| Larunbata | 2:10 | 2:21 | 2:00 | 3:04 | 3:12 | 2:43 |
| Igandea | 2:35 | 2:51 | 2:21 | 3:12 | 3:30 | 3:01 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:28** | **2:34** | **2:22** | **3:16** | **3:26** | **3:08** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:20 | 2:24 | 2:16 | 3:11 | 3:15 | 3:08 |
| Ostirala | 2:24 | 2:27 | 2:21 | 3:17 | 3:38 | 3:01 |
| Larunbata | 2:35 | 2:46 | 2:24 | 3:21 | 3:46 | 3:02 |
| Igandea | 2:58 | 3:08 | 2:48 | 3:31 | 3:41 | 3:23 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Adineko biztanle gutxi dira ikuskizunetara bertaratzen direnak (batez bestekoa ez da egunean 2 minutura iristen). Noizean behinka ikuskizunetara joaten diren adineko

pertsonen artean, aldatu egiten da horretarako hartzen den denbora gizona izan edo emakumea izan. Horrela, ikuskizunetara joaten diren adineko emakumeek ordu bat eta 44 minutu erabiltzen dituzte eta gizonek ordu bat eta 47 minutu. Kontuan hartu behar da, Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, ikuskizunetara joaten diren pertsonen kategorian beste hainbat jarduera barne hartu direla, hala nola: museoak ikustea, ikuskizunak, antzerkiak, zinea, eta abar, bai eta txartelak erosteko itxaron beharreko denbora edo sartzeko itxaron beharrekoa). Zentzu horretan, sexuen arteko desberdintasunak areagotu egiten dira asteko egunaren arabera: gizonek gainditu eta batzuetan bikoiztu egiten dute emakumeen denbora ostiraletan, eta neurri txikiago batean larunbatetan.

Hainbat jolasetan igarotzen duten denborari dagokionez, adineko pertsonek joera desberdinak adierazi dituzte sexuaren arabera. Horrela, adineko biztanleriak gainerako biztanleriak baino denbora gehiago eskaintzen die mota horretako jarduerei, eta oraingoan ere gizonen taldea da, maiztasunari dagokionez, indizerik altuenak lortu dituen taldea. Zaletasun artistikoei buruz galdetzean bakarrik adierazi dute emakumeek gizonek baino denbora gehiago igarotzen dutela, hain zuzen batez beste 2 ordu eta 2 minutu, gizonek ordubete eta 52 minutu igarotzen dituzten bitartean.

**4.5. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ikuskizun, jolas eta zaletasunetarako erabiltzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**

| | | GUZTIRA | | | 60 URTETIK GORAKOAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Ikuskizunetan bertaratzea | **Guztira** | **0:05** | **0:06** | **0:05** | **0:02** | **0:02** | **0:01** |
| | Astelehenetik- -ostegunera | 0:01 | 0:01 | 0:01 | 0:01 | 0:01 | 0:01 |
| | Ostirala | 0:04 | 0:04 | 0:04 | 0:01 | 0:03 | 0:00 |
| | Larunbata | 0:14 | 0:15 | 0:12 | 0:02 | 0:01 | 0:04 |
| | Igandea | 0:14 | 0:15 | 0:12 | 0:04 | 0:05 | 0:04 |

## 4.5. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ikuskizun, jolas eta zaletasunetarako erabiltzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003 (jarraipena)

| | | GUZTIRA | | | 60 URTETIK GORAKOAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| Jolasak | **Guztira** | **0:08** | **0:10** | **0:05** | **0:17** | **0:25** | **0:11** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:06 | 0:09 | 0:04 | 0:16 | 0:23 | 0:11 |
| | Ostirala | 0:07 | 0:09 | 0:05 | 0:15 | 0:22 | 0:09 |
| | Larunbata | 0:10 | 0:13 | 0:08 | 0:20 | 0:33 | 0:09 |
| | Igandea | 0:11 | 0:15 | 0:08 | 0:19 | 0:26 | 0:14 |
| Zaletasun artistikoak eta beste hainbat | **Guztira** | **0:02** | **0:03** | **0:01** | **0:03** | **0:06** | **0:02** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:02 | 0:03 | 0:01 | 0:04 | 0:06 | 0:02 |
| | Ostirala | 0:02 | 0:02 | 0:02 | 0:04 | 0:06 | 0:02 |
| | Larunbata | 0:03 | 0:04 | 0:02 | 0:03 | 0:04 | 0:02 |
| | Igandea | 0:03 | 0:03 | 0:02 | 0:02 | 0:03 | 0:01 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Ikuskizunetan bertaratzea | **Guztira** | **1:56** | **2:01** | **1:52** | **1:45** | **1:47** | **1:44** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:41 | 1:47 | 1:37 | 1:58 | 1:57 | 2:00 |
| | Ostirala | 1:39 | 1:42 | 1:36 | 1:50 | 2:10 | 0:45 |
| | Larunbata | 2:03 | 2:09 | 1:56 | 1:52 | 2:11 | 1:50 |
| | Igandea | 2:03 | 2:04 | 2:02 | 1:34 | 1.31 | 1.37 |
| Jolasak | **Guztira** | **1:46** | **1:56** | **1:32** | **1:56** | **2:00** | **1:48** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:46 | 1:57 | 1:30 | 1:53 | 1:55 | 1:51 |
| | Ostirala | 1:34 | 1:37 | 1:29 | 1:50 | 1:52 | 1:45 |
| | Larunbata | 1:43 | 1:52 | 1:31 | 1:51 | 2:03 | 1:27 |
| | Igandea | 1:58 | 2:13 | 1:39 | 2:17 | 2:33 | 2:01 |
| Zaletasun artistikoak eta beste hainbat | **Guztira** | **1:42** | **1:50** | **1:28** | **1:55** | **1:52** | **2:02** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:40 | 1:49 | 1:15 | 2:02 | 2:02 | 2:03 |
| | Ostirala | 1:30 | 1:21 | 1:39 | 1:36 | 1:22 | 2:30 |
| | Larunbata | 1:42 | 2:03 | 1:20 | 1:56 | 2:12 | 1:39 |
| | Igandea | 1:59 | 2:06 | 1:49 | 1:48 | 1:45 | 2:04 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Aisialdi pasiboari buruzko kapituluan pertsona ez-aktiboak barne hartzen dira, hain zuzen ezer egiten ez dutela adierazten duten biztanleak. Atal honek garrantzi berezia hartzen du biztanleria zaharrenari buruz ari garela, izan ere, askoz ere denbora gehiago dute horrela egoteko, gainerako biztanleriarekin alderatuta. Are gehiago esan daiteke: adineko emakume eta gizonen arteko desberdintasunak oso nabarmenak dira, izan ere, gizonek batez beste beren denboraren 20 minutu erabiltzen dituzten bitartean, emakumeek 38 minutu erabiltzen dituzte. Inolako jarduerarik egin gabe egoteko denbora dutela adierazi duten biztanleen arabera, emakumeek igandetan 2 ordu eta 8 minutu dituzte ezer egin gabe egoteko eta gizonek, ordea, ordubete eta 23 minutu.

**4.6. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ezer egin gabe igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:19** | **0:16** | **0:21** | **0:28** | **0:20** | **0:35** |
| Astelehenetik-ostegunera | 0:19 | 0:15 | 0:22 | 0:29 | 0:17 | 0:38 |
| Ostirala | 0:20 | 0:18 | 0:21 | 0:27 | 0:26 | 0:27 |
| Larunbata | 0:19 | 0:19 | 0:20 | 0:24 | 0:25 | 0:24 |
| Igandea | 0:19 | 0:17 | 0:20 | 0:30 | 0:19 | 0:38 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:11** | **1:05** | **1:17** | **1:38** | **1:19** | **1:49** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:09 | 0:58 | 1:19 | 1:37 | 1:08 | 1:53 |
| Ostirala | 1:09 | 1:12 | 1:07 | 1:31 | 1:35 | 1:29 |
| Larunbata | 1:14 | 1:16 | 1:13 | 1:40 | 1:49 | 1:33 |
| Igandea | 1:22 | 1:20 | 1:23 | 1:52 | 1:23 | 2:08 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

*— Adineko emakumeek ordubete eta 26 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, aisialdi pasiborako.*
*— Adineko gizonek 2 ordu eta 29 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, aisialdi pasiborako.*

Gizarte-harremanak ditugu pertsona ororen bizitzako funtsezko zati bat. Zentzu horretan egin diren hainbat azterlanen arabera, pertsona guztiek adierazi dute adiskidetasunezko harremanak dituztela. Hala ere, datuak adinaren eta sexuaren arabera aztertuz, adineko pertsonek errealitate desberdina bizi dutela ikus daiteke, batez ere emakumeek. Horrela, adineko pertsonek adineko emakumeek baino denbora gehiago erabiltzen dute gizarte-harremanetarako.

**4.7. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek gizarte-harremanetan erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:58** | **1:04** | **0:52** | **0:50** | **0:56** | **0:46** |
| Astelehenetik-ostegunera | 0:41 | 0:47 | 0:35 | 0:43 | 0:50 | 0:37 |
| Ostirala | 0:53 | 0:55 | 0:52 | 0:45 | 0:46 | 0:45 |
| Larunbata | 1:26 | 1:36 | 1:17 | 1:00 | 1:08 | 0:54 |
| Igandea | 1:42 | 1:50 | 1:34 | 1:16 | 1:18 | 1:14 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:50** | **1:57** | **1:43** | **1:44** | **1:47** | **1:42** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:26 | 1:32 | 1:19 | 1:39 | 1:40 | 1:38 |
| Ostirala | 1:46 | 1:49 | 1:44 | 1:42 | 1:39 | 1:45 |
| Larunbata | 2:22 | 2:28 | 2:15 | 1:55 | 2:03 | 1:47 |
| Igandea | 2:30 | 2:48 | 2:15 | 1:52 | 2:03 | 1:44 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

# ADINEKO PERTSONEN KIROL-JARDUERA 4.2

Kirola dugu sexuen arteko desberdintasun gehien erakusten dituen esparrua. Ariketa fisikoa eta kirol-jarduera, oraindik, gizonak nagusi diren esparruak dira funtsean. Eta egoera hori adin guztietako pertsonen artean gertatzen bada ere, are nabarmenagoa da pertsona zaharrenen artean.

Zahartzaro osasungarria edukitzeko ariketa fisikoak duen garrantzi handia aurkajarrita daude bestelako testuingurutan egindako azterketek emandako emaitzekin; horien arabera, helduaroan egoneko jarrera da nagusi. Esandakoa argi eta garbi ikus daiteke Eusko Jaurlaritzak EAEn egindako Osasun Inkestak emandako emaitzak kontuan hartuta. Inkesta horren arabera, adineko pertsonen %68,4k inguruk egoneko jarrera dutela adierazi dute. Sedentarismo edo egoneko jarrerarekin erlazionatutako portzentajeak gero eta altuagoak dira azken urteetako bilakaerari erreparatuz; zentzu horretan, adineko emakumeen kasuan %73,6ra iritsi da 2002an.

**4.8. TAULA 65 urtetik gorako pertsonek egiten duten ariketa fisikoa sexuaren arabera. 1997-2002**

| | EGONEKO JARRERA | | TARTEKOA | | AKTIBOA | | OSO AKTIBOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| Emakumeak | 61,2 | 73,6 | 21,3 | 14,7 | 13,8 | 8,4 | 3,7 | 3,2 |
| Gizonak | 54,3 | 61,1 | 16,4 | 15,3 | 20,0 | 15,3 | 9,3 | 8,4 |
| **GUZTIRA** | **58,4** | **68,4** | **19,3** | **15,0** | **16,3** | **11,2** | **6,0** | **5,4** |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Sexuen arteko desberdintasunek bere horretan jarraitzen dute kirola egiten, txangoak egiten, ehizean eta ibilaldiak egiten igarotzen den denborari erreparatuz. Kirola egiten duten adineko gizonek ordubete eta 12 minutu dituzte horretarako eta 54 minutu besterik ez, kirola egiten duten adineko emakumeek. Txango, ehiza eta ibilaldien kategorian, halaber, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ikus daitezke, nahiz eta horietako item bat isolatuz gero emaitza desberdinak lortuko ziren. Zehazkiago, azterketa horien arabera emakumeek gizonek baino denbora gehiago igarotzen dute ibilaldiak egiteko eta horixe da, hain zuzen, emakumeek gehien egiten duten jardueretako bat.

### 4.9. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek kirola egiten, ehizan, txangoak eta ibilaldiak egiten erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3

| | | GUZTIRA | | | 60 URTETIK GORAKOAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Kirola egitea | **Guztira** | **0:10** | **0:13** | **0:07** | **0:04** | **0:04** | **0:04** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:10 | 0:12 | 0:08 | 0:04 | 0:04 | 0:05 |
| | Ostirala | 0:11 | 0:17 | 0:06 | 0:06 | 0:08 | 0:04 |
| | Larunbata | 0:10 | 0:16 | 0:05 | 0:04 | 0:05 | 0:03 |
| | Igandea | 0:08 | 0:13 | 0:03 | 0:02 | 0:03 | 0:01 |
| Txangoak, ehiza, pasealekuak | **Guztira** | **1:00** | **1:04** | **0:57** | **1:37** | **2:01** | **1:20** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:46 | 0:46 | 0:46 | 1:30 | 1:53 | 1:14 |
| | Ostirala | 0:56 | 1:01 | 0:51 | 1:37 | 2:00 | 1:20 |
| | Larunbata | 1:27 | 1:38 | 1:17 | 1:50 | 2:18 | 1:29 |
| | Igandea | 1:35 | 1:47 | 1:24 | 1:53 | 2:19 | 1:35 |

## 4.9. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek kirola egiten, ehizan, txangoak eta ibilaldiak egiten erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3 (jarraipena)

| | | GUZTIRA | | | 60 URTETIK GORAKOAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Kirola egitea | **Guztira** | **1:24** | **1:37** | **1:06** | **1:01** | **1:12** | **0:54** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:17 | 1:29 | 1:04 | 0:59 | 1:14 | 0:53 |
| | Ostirala | 1:27 | 1:36 | 1:10 | 1:14 | 1:16 | 1:11 |
| | Larunbata | 1:42 | 1:56 | 1:14 | 0:56 | 1:03 | 0:50 |
| | Igandea | 1:41 | 1:54 | 1:08 | 0:53 | 1:14 | 0:36 |
| Txangoak, ehiza, pasealekuak | **Guztira** | **2:06** | **2:19** | **1:54** | **2:22** | **2:41** | **2:06** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:54 | 2:04 | 1:46 | 2:16 | 2:33 | 2:01 |
| | Ostirala | 1:58 | 2:12 | 1:45 | 2:26 | 2:55 | 2.04 |
| | Larunbata | 2:26 | 2:46 | 2:09 | 2:33 | 3:02 | 2:08 |
| | Igandea | 2:23 | 2:36 | 2:10 | 2:33 | 2:41 | 2:26 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

*— Ariketa fisikoaren eta kirol-jardueraren kategorian gizonak dira gehiengoa.*
*— Adineko emakumeen %73,6 sedentariotzat jotzen du bere burua (egoneko jarrera); gizonen artean %61,1 dira gauza bera adierazi dutenak.*

# HEZKUNTZA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK EZAGUTZEKO AUKERA

# 4.3

Adineko Pertsonen Nazioarteko Urtea dela eta, Nazio Batuen Erakundeak bizitzako etapa guztietan etengabeko prestakuntza eskaintzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. Adineko pertsona askok lan-bizitza amaitu dutela eta familia-erantzukizunak arinagoak dituztela kontuan hartuta, zenbaitek hezkuntza-jarduerak aukeratzen dituzte beren denbora erabiltzeko.

EAEn, 2002-03 ikasturtean 1.673 ziren Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (HHI) matrikulatutako 64 urtetik gorako pertsonak, eta horietatik %84,9 emakumeak ziren. Emakumeak dira gehiengoa HHIn matrikulatutako adin guztietako pertsonen artetik, baina sexuen arteko desberdintasunak are nabarmenagoak dira 55 urtetik gorako pertsonen taldean; kasu horretan, matrikulatutako ikasleen hiru heren emakumeak dira.

**4.10. TAULA HHIko ikasleak adinaren eta sexuaren arabera EAEn. 2002/2003. Portzentaje bertikalak**

| ADINA | | 54 ARTE | 55-64 | >64 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Abs.** | **14.159** | **2.540** | **1.673** | **18.372** |
| Emakumeak | Abs. | 7.965 | 2.144 | 1.420 | 11.259 |
| | % | 56,3 | 84,4 | 84,9 | 62,8 |
| Gizonak | Abs. | 6.194 | 396 | 253 | 6.843 |
| | % | 43,7 | 15,6 | 15,1 | 37,2 |

ITURRIA: EUSTAT. Irakaskuntzaren estatistika.

**4.11. TAULA** **64 urtetik gorako HHIko ikasleak, lurralde historikoka. 2002/2003. Portzentaje bertikalak**

| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Abs.** | **246** | **848** | **579** | **1.673** |
| Emakumeak | Abs. | 207 | 727 | 486 | 1420 |
| | % | 84,1 | 85,7 | 83,9 | 84,9 |
| Gizonak | Abs. | 39 | 121 | 93 | 253 |
| | % | 15,9 | 14,3 | 16,1 | 15,1 |

ITURRIA: EUSTAT. Irakaskuntzaren estatistika.

Hainbat urte dira EAEn Euskal Herriko Unibertsitateak Giza Zientziekin erlazionatutako hainbat esparrutako ezagutzak areagotu nahi dituzten adineko pertsonentzako esperientzia berri bat martxan jarri zuela. Ekimen hori Esperientziaren Gelak izenez ezagutzen da: 2003-04 ikasturtean, guztira, 636 pertsona matrikulatu ziren titulazioak dituen hiru mailatan. Oraingoan ere emakumeak dira gehiengoa matrikulatutako ikasleei erreparatuz, hain zuzen hiru campusetan matrikulatu diren pertsonen %60,01 dira emakumeak.

**4.12. TAULA** **Giza Zientzien titulazioan matrikulatutako ikasleak (Esperientziaren Gelak-EHU) 2003-04 ikasturtea. Portzentaje bertikalak**

| | | BIZKAIA | ARABA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **Abs.** | **327** | **115** | **194** | **636** |
| Emakumeak | Abs. | 201 | 67 | 120 | 388 |
| | % | 61,47 | 58,26 | 61,85 | 61,01 |
| Gizonak | Abs. | 126 | 48 | 74 | 248 |
| | % | 38,53 | 41,74 | 38,15 | 38,99 |

ITURRIA: Esperientziaren Gelen Idazkaritzek (EHU) emandako datuetan oinarrituta landu da taula.

*[ Adineko emakumeak dira gehiengo HHIn eta Esperientziaren Geletan. ]*

Teknologia berrien agerpenak eta ezarpenak gizarte-portaeren aldaketa ekarri dute. Adineko pertsonek zailtasun gehiago dituzte aldaketa berrietara egokitzeko, nahiz eta datuei erreparatuz, adineko biztanle askok teknologia berrietara ahal den neurrian egokitzeko interesa agertu duten. Adineko gizonen %16,2k eta emakumeen %19k bakarrik adierazi dute ez dutela Internet ezagutzen. Ezagutza-portzentajeak adineko pertsonen artean baxuagoak badira ere, datuen arabera esan daiteke EAEko adineko biztanleriak, eskuarki, informazio egokia eta nahikoa duela teknologia berrien inguruan.

**4.13. TAULA Interneten ezagutza EAEn, adinaren arabera. Portzentaje bertikalak (2003)**

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | > 64 URTE | GUZTIRA | > 64 URTE | GUZTIRA |
| Bai | 83,8 | 95,1 | 81,0 | 93,5 |
| Ez | 16,2 | 4,9 | 19,0 | 6,5 |

ITURRIA: Euskobarometroa. 2003ko maiatza.

Teknologia berriekin erlazionatuta erabiltzen den denborari dagokionez, sexuen eta adinaren araberako desberdintasunak ikus daitezke. Denbora Aurrekontuen Inkestan bi kategoria bereizten dira alderdi hori neurtzeko: ordenagailuak eta bestelako bitarteko informatikoak erabiltzeko denbora eta internet erabiltzen igarotako denbora. Zentzu horretan, adineko gizonek egunean batez beste minutu bat erabiltzen dute eta emakumeek, ordea, ez dituzte ordenagailuak eta bestelako bitarteko informatikoak erabiltzen. Gizonek emakumeek baino denbora gehiago igarotzen dute internet erabiltzen (3 minutu egunean, batez beste, eta bi minutu emakumeek).

Datuak aldatu egiten dira aipatutako jarduerak egiten dituztela adierazi duten pertsonak bakarrik hartzen badira kontuan. Kasu horretan, adineko pertsonen artean biztanleriaren guztizkoaren artean lortutako kopuruen antzekoak eta, batzuetan, altuagoak, lortu dira. Desberdintasun handienak internet erabiltzen dutela adierazi duten adineko parte-hartzaileen taldean ikus daiteke: 3 ordu eta 34 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, internet erabiltzeko, eta gainerako biztanleriak, ordea, ordubete eta 24 minutu. Gizon eta emakumeen arteko aldea ez da aldatzen asteko egunetan, baina nabarmenki murrizten da igandetan. Era berean, adineko emakume eta gizonen artean desberdintasunak aurkituko ditugu: adineko emakume parte-hartzaileek 3 ordu eta 50 minutu erabiltzen dituzte batez beste, eta adineko gizon parte-hartzaileek 3 ordu eta 32 minutu.

### 4.14. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ordenagailua eta internet erabiltzen emandako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3

| | | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Ordenagailua eta bestelako bitarteko informatikoen erabilera | **Guztira** | **0:03** | **0:04** | **0:02** | **0:00** | **0:01** | **0:00** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:02 | 0:03 | 0:02 | 0:00 | 0:01 | 0:00 |
| | Ostirala | 0:03 | 0:05 | 0:02 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| | Larunbata | 0:03 | 0:05 | 0:01 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| | Igandea | 0:02 | 0:03 | 0:02 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| Interneten erabilera | **Guztira** | **0:04** | **0:06** | **0:02** | **0:02** | **0:03** | **0:02** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:04 | 0:06 | 0:03 | 0:04 | 0:04 | 0:03 |
| | Ostirala | 0:04 | 0:05 | 0:03 | 0:01 | 0:02 | 0:00 |
| | Larunbata | 0:04 | 0:05 | 0:02 | 0:01 | 0:02 | 0:00 |
| | Igandea | 0:03 | 0:06 | 0:01 | 0:00 | 0:01 | 0:00 |

**4.14. TAULA** **Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ordenagailua eta internet erabiltzen emandako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3 (jarraipena)**

| | | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Ordenagailua eta bestelako bitarteko informatikoen erabilera | **Guztira** | **1:18** | **1:17** | **1:20** | **1:11** | **1:13** | **1:03** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:11 | 1:08 | 1:18 | 1:19 | 1:19 | 0:00 |
| | Ostirala | 1:45 | 1:43 | 1:50 | 1:15 | 0:00 | 1:15 |
| | Larunbata | 1:32 | 1:37 | 1:08 | 0:58 | 1:05 | 0:45 |
| | Igandea | 1:07 | 1:05 | 1:11 | 0:40 | 0:40 | 0:00 |
| Interneten erabilera | **Guztira** | **1:24** | **1:28** | **1:17** | **3:34** | **3:22** | **3:50** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:26 | 1:26 | 1:27 | 4:00 | 4:03 | 3:57 |
| | Ostirala | 1:14 | 1:28 | 0:57 | 2:57 | 2:57 | 0:00 |
| | Larunbata | 1:38 | 1:43 | 1:27 | 2:14 | 2:24 | 1:30 |
| | Igandea | 1:17 | 1:26 | 0:55 | 1:24 | 1:24 | 0:00 |



ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

# ELKARTASUNA ETA ZAINKETA-LANAK 4.4

Adineko pertsonen beren denborari ematen dioten erabilera aztertzen ari garela, ezin dugu ahaztu emakume eta gizon zaharrenek beren familien baitan eta lagunen

artean eta, oro har, gizartean egiten duten ekarpena. Sarritan, adineko pertsonei buruzko azterketetan arazo gisa aurkezten zaizkigu pertsona horiek eta inguruko pertsonentzat karga gisa aurkezten zaizkigu. Hala ere, bizi-kalitateak eta osasunak izandako hobekuntzaren ondorioz gero eta baldintza hobeagotan iristen gara adin horietara eta, gauzak horrela, adineko pertsonak ez dira oztopo edo arazo gisa ikusten; aitzitik, giza baliabide eta baliabide profesional baliagarri moduan aurkezten zaizkigu.

Zahartze-prozesuaren hasierako urteetan adineko pertsonak erabakiak hartzeko autonomia eta gaitasuna dute eta, horrez gain, pertsona horien artetik askok laguntzen dute beren familiaren zein lagunen ongizatea hobetzen eta garatzen dituzten jarduerei esker gizartearen ongizatea laguntzen dute. Nahiz eta zaila den horrelako egoerak estatistika batean islatzea, erabilitako zenbait datu oso baliagarriak dira emakumeek eta gizonek ingurunera egiten duten ekarpena ezagutzeko.

Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, adineko pertsona parte-hartzaileek ordubete eta 9 minutu eskaintzen dituzte parte-hartze zibil desinteresatuaren esparruari, ordubete eta 25 minutu erakundeen bitartez egiten den lan desinteresatuaren esparruari eta bi ordu eta 58 minutu, azkenik, erakunde baten bitartez lan egiteari. Desberdintasun handiak ikus daitezke azken bi kategoria horietan: erakunde batean egiten den lan desinteresatua esatean, erakunde baten baitan egiten diren borondatezko zereginak ulertu behar da; erakunde baten bitartez egiten den lana esatean, bestalde, kanpora begira egin behar den eta erakundearen jardueraren onuradun diren pertsonei zuzeneko laguntza eskaintzeko egiten den lana ulertu behar da. Zentzu horretan, nabarmen geratu dira, oraingoan ere, sexuen arteko desberdintasunak: gizonek denbora gehiago eskaintzen diote parte-hartze zibilari eta erakunde baten bidezko lan desinteresatuari, eta datuak aldatu egiten dira asteko egunaren arabera; emakumeen kasuan, aitzitik, egunean 2 ordu baino gehiago eskaintzen diote (igandetan izan ezik) lan boluntarioak egiteari.

## 4.15. TAULA Biztanleria parte-hartzaileak parte-hartze zibilean egindako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3

| | | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Parte-hartze zibil desinteresatua eta laguntzak | **Guztira** | **1:21** | **1:36** | **0:57** | **1:09** | **1:17** | **0:56** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:21 | 1:32 | 0:48 | 1:13 | 1:13 | 0:00 |
| | Ostirala | 1:23 | 1:18 | 1:27 | 1:53 | 2:09 | 1:43 |
| | Larunbata | 2:33 | 2:54 | 1:39 | 1:49 | 2:14 | 0:55 |
| | Igandea | 0:40 | 0:43 | 0:37 | 0:33 | 0:30 | 0:35 |
| Erakunde batean lan desinteresatua | **Guztira** | **2:29** | **2:29** | **2:29** | **1:25** | **1.51** | **0:57** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 2:03 | 2:13 | 1:20 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| | Ostirala | 1:58 | 1:49 | 2:40 | 1:32 | 1:08 | 2:40 |
| | Larunbata | 6:50 | 7:53 | 4:59 | 6:10 | 6:10 | 0:00 |
| | Igandea | 2:27 | 2:00 | 2:37 | 0:05 | 0:00 | 0:05 |
| Erakunde baten bidezko lana (pertsona onuradunekin zuzenean) | **Guztira** | **1:13** | **0:37** | **1:17** | **2:58** | **0:00** | **2:58** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:16 | 0:00 | 1:16 | 3:00 | 0:00 | 3:00 |
| | Ostirala | 1:08 | 0:50 | 1:20 | 2:30 | 0:00 | 2:30 |
| | Larunbata | 0:43 | 0:15 | 1:15 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| | Igandea | **** | **** | **** | **** | **** | ***** |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

Adineko pertsonek, era berean, denbora asko erabiltzen dute beste pertsona batzuk zaintzen eta beste familia batzuetan laguntza informala eskaintzen. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ez dira oso garrantzitsuak, beste adin batzuetako desberdintasunekin alderatuta. Horrela, beste familia batzuetan laguntza informala eskaintzen duten adineko pertsonei dagokienez, emakumeek 2 ordu eta 23 minutu erabiltzen dituzte eta gizonek 2 ordu eta 15 minutu. Normalean, asteburuak erabiltzen dira beste familiei laguntzeko.

Beste pertsona batzuk zaintzeko ardurari dagokionez, nabarmenagoa da emakumeek eta gizonek erabiltzen duten denboraren arteko aldea. Zainketa-lanak egiten dituzten adineko emakumeek ordubete eta 13 minutu erabiltzen dute, batez beste, haurrak zaintzen eta 2 ordu eta 6 minutu erabiltzen dituzte pertsona helduak zaintzen. Aitzitik, adin bereko gizonek 59 minutu erabiltzen dituzte haurrak zaintzeko eta ordubete eta 55 minutu, berriz, adineko pertsonak zaintzeko.

**4.16. TAULA Biztanleria parte-hartzaileak haurrak eta adineko pertsonak zaintzen eta beste familia batzuetan laguntza informala ematen igarotako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**



| | | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Haurrak zaintzea | **Guztira** | **1:22** | **1:01** | **1:33** | **1:09** | **0:59** | **1:13** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:22 | 1:01 | 1:33 | 1:07 | 0:56 | 1:11 |
| | Ostirala | 1:22 | 0:57 | 1:37 | 1:21 | 1:07 | 1:29 |
| | Larunbata | 1:24 | 1:09 | 1:32 | 1:15 | 0:10 | 1:20 |
| | Igandea | 1:19 | 0:56 | 0:34 | 0:52 | 0:58 | 0:51 |
| Adineko pertsonak zaintzea | **Guztira** | **1:43** | **1:21** | **1:48** | **2.03** | **1:55** | **2.06** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:44 | 1:42 | 1:45 | 2:12 | 2:17 | 2:11 |
| | Ostirala | 2:10 | 1:25 | 2:19 | 2:24 | 0:54 | 2.44 |
| | Larunbata | 1:26 | 0:51 | 1.35 | 1:24 | 0:53 | 1:34 |
| | Igandea | 1:35 | 0:47 | 1:58 | 1:22 | 1:06 | 1:29 |
| Beste familia batzuetan laguntza informalak | **Guztira** | **1:36** | **1:10** | **2:07** | **2:20** | **2.15** | **2:23** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:26 | 1:10 | 2:09 | 2:34 | 2:15 | 3:08 |
| | Ostirala | 2:01 | 0:30 | 2:27 | 2:19 | 0:00 | 2:19 |
| | Larunbata | 2:26 | 1:10 | 4:12 | 0:00 | 0:00 | 0:00 |
| | Igandea | 1:28 | 1:43 | 1:23 | 1:27 | 0:00 | 1:27 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

# ERLIJIOTASUNA 4.5

Adineko pertsonek erlijioarekin duten erlazioa eta gainerako adinekoek dutena desberdinak dira. Hain zuzen, 64 urtetik gorako pertsona horien erdiak baino gehiagok adierazi dute katolikoak direla eta mezara joaten direla edo oso katoliko onak direla eta biztanleria orokorrean hartuta laurden bat izan dira gauza bera adierazi dutenak. Adineko emakumeen artean erregistratu dira erlijiotasunarekin erlazionatutako portzentajerik altuenak, gizonekin alderatuta: %53,2k adierazi dute katolikoak direla eta mezara joaten direla, eta gizonen artean %48,2 izan dira gauza bera adierazi dutenak; emakumeen %17,9k katoliko ontzat dute beren burua, eta gizonen artean %9,2 dira.

**4.17. TAULA Sinesmen erlijiosoa, sexuaren eta adinaren arabera (2001). Portzentaje bertikalak**

| | | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | > 64 | GUZTIRA | >64 |
| Oso katoliko ona | 3,7 | 9,2 | 6,0 | 17,9 |
| Katolikoa, mezara joaten da | 15,1 | 48,2 | 22,8 | 53,2 |
| Katolikoa, mezara gutxitan joaten da | 24,5 | 17,0 | 22,6 | 13,3 |
| Katolikoa, ez da mezara joaten | 28,2 | 18,4 | 27,8 | 9,2 |
| Beste erlijio bat | 2,2 | 2,1 | 1,5 | - |
| Berdin zaio | 11,6 | - | 9,2 | 2,9 |
| Ateoa | 14,0 | 5,0 | 9,4 | 2,3 |
| EE | 0,7 | - | 0,8 | 1,2 |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

ITURRIA: Euskobarometroa, 2003ko azaroa.

Parte-hartze erlijiosoari eskaintzen zaion denborari dagokionez, sexuen artean desberdintasunak ikus daitezke. Adineko emakumeek egunean 8 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, parte-hartze erlijiosorako; gizonek 3 minutu erabiltzen dituzte. Parte-hartze erlijiosoa aldatu egiten da aste egunaren arabera. Igandetan 24 minutuko batez bestekoa lortu dute emakumeek eta 12 minutukoa gizonek. Desberdintasun horiek desagertu egiten dira biztanleria parte-hartzailea bakarrik kontuan hartuta, izan ere, gizon parte-hartzaileek egunean 54 minutu erabiltzen dituzte eta emakumeek 59 minutu.

**4.18. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileen parte-hartze erlijiosora zuzendutako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-2003**

| | GUZTIRA | | | 60 URTE EDO GEHIAGO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:03** | **0:02** | **0:04** | **0:06** | **0:03** | **0:08** |
| Astelehenetik-ostegunera | 0:02 | 0:01 | 0:02 | 0:03 | 0:00 | 0:05 |
| Ostirala | 0:02 | 0:01 | 0:02 | 0:04 | 0:02 | 0:05 |
| Larunbata | 0:03 | 0:02 | 0:03 | 0:07 | 0:05 | 0:08 |
| Igandea | 0:09 | 0:05 | 0:12 | 0:19 | 0:12 | 0:24 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:01** | **1:00** | **1:01** | **0:58** | **0:54** | **0:59** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:13 | 1:15 | 1:13 | 1.11 | 0:30 | 1:13 |
| Ostirala | 1:06 | 1:17 | 1:02 | 1:00 | 1:10 | 0:58 |
| Larunbata | 0:53 | 0:57 | 0:51 | 0:52 | 0:58 | 0:49 |
| Igandea | 0:55 | 0:54 | 0:56 | 0:54 | 0:53 | 0:55 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003.

# 5

# ADINEKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Gaur egungo gizartean, emakumeen aurkako indarkeria garrantzi handiko arazo bihurtu da. Adin guztietako emakumeek pairatzen dute indarkeria, maila ekonomikoa eta kulturala edozein izanik. Indarkeria-mota desberdinak bereiz daitezke (indarkeria fisikoa, psikikoa edo sexuala), eta guztiak jartzen dute arriskuan emakumeen osasuna eta bizitza. Emakume zaharrenen artean ere gertatzen dira horrelako egoerak eta, kasu askotan, urte askotan jasan dituzte tratu txarrak, nahiz eta egoera horiek ez diren estatistiketan islatzen.

Txosten honetan barne hartutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko adierazleak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak landutako estatistikan oinarrituta landu dira. Aipatutako estatistika egiteko Ertzaintzaren polizia-etxeetan 2003an jarritako salaketak erabili ziren. Azterketa egoki bat egiteko datu horiek oso garrantzitsuak dira, eta gero eta gehiago badira indarkeriazko gertaerak salatzen dituzten emakumeak, kasu gehienak esparru pribatuan gordetzen dira. Emakumeen aurkako indarkeria, beraz, ikusezin bihurtzen da belaunaldi zaharrenen kasuan eta, ondorioz, jarraian adierazten diren adierazleak kontu handiz interpretatu behar dira.

Herrizaingo Sailak landutako estatistikan bi kontzeptu bereizten dira: biktimizazioak eta biktimak. Biktimizazioa indarkeriazko gertaera bat gertatu eta salatu denean erabiltzen da, pertsona berberak (biktimak) gertaera hori behin baino gehiagotan pairatzen badu ere.

2003an, emakumeen aurkako indarkeriazko gertaerak eta tratu txarrak direla eta 2.379 salaketa jarri ziren EAEn. Horietatik 169 (%7,1) 60 urtetik gorako emakumeek jarri zituzten. Adin horretako emakumeek aurkeztutako salaketen artetik 106 delitutzat tipifikatu ziren eta 63 hutsegitetzat. Beste adin-tarte batzuetako biktimizazioen joerarekin bat eginez, familiaren baitan gertatutako lesio eta tratu txarrekin erlazionatutako delituak eta hutsegiteak izan ziren gehienak, eta neurri txikiago batean mehatxuak.

## 5.1. TAULA Emakumeen indarkeriagatiko biktimizazioak, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003

| GERTAERA MOTA | 60-69 URTE | 70-79 URTE | 79 URTE BAINO GEHIAGO | GUZTIRA 60 URTETIK GORAKOAK | GUZTIRA BIZTANLERIA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Gizahilketak eta antzekoak** | | | | **-** | **3** |
| Gizahilketa | | | | - | 2 |
| Hilketa | | | | - | 1 |
| **Lesioak** | **45** | **23** | **8** | **76** | **987** |
| Familiaren baitako tratu txarrak | 39 | 22 | 7 | 68 | 885 |
| Lesioak | 6 | 1 | 1 | 8 | 102 |
| **Askatasunaren aurka** | **19** | **7** | **3** | **29** | **364** |
| Bahiketa | | | | - | 3 |
| Mehatxuak | 17 | 7 | 3 | 27 | 325 |
| Hertsapena | 2 | | | 2 | 36 |
| **Ohorearen aurka** | | **1** | | **1** | **18** |
| Kalumniak | | | | - | 9 |
| Irainak | | 1 | | 1 | 9 |
| **DELITUAK GUZTIRA** | **64** | **31** | **11** | **106** | **1.372** |
| **Pertsonen aurkako hutsegiteak** | | | | | |
| Lesio-hutsegitea | 8 | 9 | 2 | 19 | 366 |
| Zuhurtzigabekeriaren lesio-hutsegitea | | | | - | 1 |
| Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea | 7 | 4 | 2 | 13 | 184 |
| Tratu txarren hutsegitea lesiorik gabe | 1 | 1 | | 2 | 21 |
| Bexazio-hutsegitea | 1 | | 1 | 2 | 28 |
| Mehatxu-hutsegitea | 13 | 3 | | 16 | 276 |
| Hertsapen-hutsegitea | 4 | 2 | | 6 | 84 |
| Irain-hutsegitea | 2 | 3 | | 5 | 47 |
| **GUZTIRA HUTSEGITEAK** | **36** | **22** | **5** | **63** | **1.007** |
| **GUZTIRA** | **100** | **53** | **16** | **169** | **2.379** |

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

Emakumeek pairatzen dituzten indarkeriazko gertaerak eta tratu txarrak, gehienetan, familiaren baitan izaten dira. Adin-tarte guztien kasuan biktimaren bikotekidea da, batik bat, erasotzailea. 60 urtetik gorako emakumeen artean ere oso sarritan ikusten dira tratu txarrak adineko emakumeen seme/alaben aldetik.

## 5.2. TAULA Indarkeriaren biktima izan diren emakumeak, erasotzailearenganako erlazio-motaren arabera, adinaren arabera. 2003

| ERLAZIOA | 60-69 URTE | 70-79 URTE | 79 URTE BAINO GEHIAGO | GUZTIRA 60 URTETIK GORAKOAK | GUZTIRA BIZTANLERIA |
|---|---|---|---|---|---|
| Ezkontidea edo parekoa | 40 | 15 | 4 | 59 | 1.477 |
| Alaba, adingabekoa | | | | - | 27 |
| Ama | 25 | 21 | 9 | 55 | 154 |
| Gainerako senideak | 18 | 14 | 2 | 34 | 369 |
| **GUZTIRA** | **83** | **50** | **15** | **148** | **2.027** |

ITURRIA: Herrizaingo Saila.



## 5.3. TAULA Emakumeen biktimizazioak ezkontidearen edo parekoaren aldetik, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003

| GERTAERA MOTA | 60-69 URTE | 70-79 URTE | 79 URTE BAINO GEHIAGO | GUZTIRA 60 URTETIK GORAKOAK | GUZTIRA BIZTANLERIA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Gizahilketak eta antzekoak** | | | | | **3** |
| Gizahilketa | | | | | 2 |
| Hilketa | | | | | 1 |
| **Lesioak** | **23** | **10** | **2** | **35** | **795** |
| Familiaren baitako tratu txarrak | 19 | 10 | 1 | 30 | 727 |
| Lesioak | 4 | | 1 | 5 | 68 |
| **Askatasunaren aurka** | **7** | **2** | | **9** | **266** |
| Bahiketa | | | | - | 3 |
| Mehatxuak | 6 | 2 | | 8 | 235 |
| Hertsapena | 1 | | | 1 | 28 |
| **Ohorearen aurka** | | | | **-** | **12** |
| Kalumniak | | | | - | 5 |
| Irainak | | | | - | 7 |
| **DELITUAK GUZTIRA** | **30** | **12** | **2** | **44** | **1.077** |
| **Pertsonen aurkako hutsegiteak** | **15** | **5** | **2** | **22** | **696** |
| Lesio-hutsegitea | 3 | 2 | | 5 | 224 |
| Zuhurtzigabekeriaren lesio-hutsegitea | | | | - | 1 |
| Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea | 3 | 1 | 1 | 5 | 146 |
| Tratu txarren hutsegitea lesiorik gabe | 1 | | | 1 | 14 |
| Bexazio-hutsegitea | 1 | | 1 | 2 | 24 |
| Mehatxu-hutsegitea | 3 | 1 | | 4 | 195 |
| Hertsapen-hutsegitea | 2 | | | 2 | 64 |
| Irain-hutsegitea | 2 | 1 | | 3 | 28 |
| **GUZTIRA HUTSEGITEAK** | **15** | **5** | **2** | **22** | **696** |
| **GUZTIRA** | **45** | **17** | **4** | **66** | **1.773** |

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

2003an, ezkontidearen edo bikotearen aldetik indarkeria jasan zuten emakumeak, guztira, 1.773 izan ziren. Horien artetik 66 60 urtetik gorako emakumeak izan ziren. Gehienetan familiaren baitan gertatutako indarkeria edo tratu txarrak dira.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak ere emakumeen aurkako indarkeria erakusteko beste modu bat dira. 2002an, guztira, 274 salaketa jarri ziren sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, eta horietatik 5 bakarrik jarri zituzten 60 urtetik gorako emakumeek. Sexu-erasoei dagokienez, sexu-jazarpena edo exhibizionismoa dira emakume gazteenek maiz jasaten dituzten erasoak; tratu txarrak, berriz, gehiago gertatzen dira erdiko adin-taldeetako eta goiko adin-taldeetako emakumeen artean.

### 5.4. TAULA Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakumeen biktimizazioa, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003

| GERTAERA MOTA | 60-69 URTE | 70-79 URTE | 79 URTE BAINO GEHIAGO | GUZTIRA 60 URTETIK GORAKOAK | GUZTIRA BIZTANLERIA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Sexu-askatasunaren aurka** | | | | | |
| Sexu-erasoa | | 4 | | 4 | 149 |
| Sexu-abusua | 1 | | | - | 83 |
| Sexu-jazarpena | | | | - | 5 |
| Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa | | | | - | 29 |
| Adingabekoen galbideraketa | | | | - | 5 |
| Prostituzioa | | | | - | 3 |
| **GUZTIRA** | **1** | **4** | | **5** | **274** |

ITURRIA: Herrizaingo Saila.

# 6

# ADINEKO PERTSONEN OSASUNA

Osasuna da adineko pertsonen bizitzako beste elementu garrantzitsu bat. Azken urteetan, gero eta garrantzi handiagoa hartu dute emakumeek eta gizonek osasunaren inguruan bizi duten egoerari buruzko azterketek; alde batetik, osasunaren betiko definizioa aztertu da, batez ere gizonen osasunean oinarritutako sintomak eta tratamenduak; eta, bestetik, pertsona ororen bizi-kalitatean osasunak duen garrantzia azpimarratu nahi izan da.

Atal honetan osasuna aztertzeko orduan, kontuan hartu behar dira norberaren osasunaren eta gaitasunaren pertzepzioa, osasun-baliabideen erabilera eta sendagaien kontsumoa bezalako adierazleak. Horrez gain, heriotza-indizeak eta portaera arriskutsuen azterketak barne hartu dira. Amaitzeko, azterketa osatzeko ezintasunak dituzten adineko pertsonen taldea barne hartu da, izan ere, zentzu horretan egindako ikasketek argi utzi dute pertsonek ezintasunekin duten erlazioa aldatu egiten dela bizitzan.

## OSASUNAREN PERTZEPZIOA ETA ARAZOAK 6.1

Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonek pertzepzio positiboa adierazi dute beren osasunari buruz galdetzean. Ez dugu aurkitu, beraz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunik osasunaren pertzepzioari dagokionez; eta azken urteotan, gainera, gero eta positiboagoa da bi sexuen beren osasunaren gainean duten pertzepzioa. Gauzak horrela, biztanleriaren erdiak baino gehiagok adierazi dute osasun ona edo oso ona dutela uste dutela, nahiz eta pertzepzioak okerrera egiten duen adinean aurrera egin ahala.

65 urtetik gorako pertsonek beren osasunaren gainean adierazitako pertzepzioa pertsona gazteena baino negatiboagoa da. Adin-tarte horretan nabarmenagoak dira se-

xuen arteko desberdintasunak, eta emakumeak dira pertzepzio negatiboena adierazi dutenak.

**6.1. TAULA 65 urtetik gorako pertsonen osasunaren pertzepzioa, adinaren arabera. 1997-2002**

| | OSO ONA | | ONA | | ARRUNTA | | TXARRA | | OSO TXARRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| Emakumeak | 7,2 | 6,9 | 31,8 | 36,0 | 43,0 | 36,0 | 15,4 | 18,9 | 2,6 | 2,2 |
| Gizonak | 7,5 | 7,7 | 28,9 | 38,6 | 47,3 | 38,8 | 14,3 | 13,4 | 2,0 | 1,4 |
| **GUZTIRA** | **7,4** | **7,2** | **30,6** | **37,1** | **44,7** | **37,2** | **14,9** | **16,6** | **2,3** | **1,9** |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunaren Inkesta.

Sexuen arteko desberdintasunak are nabarmenagoak dira osasun-arazoei erreparatuz. Horrela, adineko emakume gehiagok dituzte osasun-arazoak. Emakumeek arazo gehiago dituzte mugitzeko ahalmenari dagokionez (ibili, eskailerak jaitsi eta igo, etxean ibili...); gizonek, berriz, portzentaje baxuagoak erregistratu dira gizonen artean bestelako jardueratan, hala nola hitz egitea edo bakarrik jateko gai izatea.

*— Adineko emakumeek zailtasun handiagoak dituzte mugimenduarekin erlazionatutako jarduerak garatzeko.*
*— Adineko gizonek zailtasun handiagok dituzte elkarrizketa bat edukitzeko.*



## 6.2. TAULA Osasun-arazoak dituzten 60 urtetik gorako biztanleak, sexuaren arabera

| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|
| ZAILTASUNAK | % | % |
| Zailtasunak ditu | 29,6 | 20,3 |
| Ez du zailtasunik | 70,4 | 79,7 |
| **Elkarrizketa bat edukitzeko gaitasuna** | | |
| Ez du zailtasunik | 23,7 | 15,6 |
| Zailtasunak ditu | 4,1 | 3,5 |
| Ezin du | 1,8 | 1,1 |
| **400 m. ibiltzea, nekatu gabe** | | |
| Ez du zailtasunik | 4,3 | 4,9 |
| Zailtasunak ditu | 17,7 | 12,8 |
| Ezin du | 7,5 | 2,6 |
| **Eskailera bai igo eta jaistea** | | |
| Ez du zailtasunik | 1,9 | 2,8 |
| Zailtasunak ditu | 21,3 | 15,1 |
| Ezin du | 6,4 | 2,4 |
| **Etxean ibiltzea** | | |
| Ez du zailtasunik | 14,3 | 14,9 |
| Zailtasunak ditu | 12,5 | 4,8 |
| Ezin du | 2,9 | 0,6 |
| **Jantzi, erantzi eta garbitzeko gaitasuna** | | |
| Ez du zailtasunik | 18,0 | 15,8 |
| Zailtasunak ditu | 9,0 | 3,6 |
| Ezin du | 2,6 | 0,9 |
| **Bakarrik jateko gaitasuna** | | |
| Ez du zailtasunik | 24,2 | 19,1 |
| Zailtasunak ditu | 2,6 | 0,6 |
| Ezin du | 2,9 | 0,6 |



ITURRIA: Eustat, Bizi Baldintzei buruzko inkesta, 1999.

Zentzu horretan, oso adierazle interesgarria aurkezten digu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak landutako Osasunaren Inkestak: ezintasun funtzionalaren eragina, hain zuzen. Inkesta horretan, ezintasuntzat jo da arazo kroniko edo agutu baten ondorioz aldi baterako ezintasuna edo betirako ezintasunaren ondorioz jarduera bat garatzeko gaitasuna mugatuta edukitzea. Zentzu horretan, 65 urtetik gorako emakumeek ezintasun funtzionala sarriagotan agertzen da, adin bereko gizonekin alderatuta.

### 6.3. TAULA Ezintasun funtzionalaren eragina (%), sexuaren arabera. 1997-2002

| | 1997 | 2002 |
|---|---|---|
| GIZONAK | | |
| Guztira gizonak | 10,1 | 7,7 |
| Gizonak, 65 urte eta gehiago | 25,3 | 19,2 |
| EMAKUMEAK | | |
| Guztira emakumeak | 9,4 | 8,1 |
| Emakumeak, 65 eta gehiago | 29,0 | 22,8 |
| BI SEXUAK | | |
| **GUZTIRA 65 urtetik gorakoak** | **27,4** | **21,3** |
| **Guztira Biztanleria** | **9,7** | **7,9** |



ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunaren Inkesta.

## OSASUN-BALIABIDEEN ERABILERA 6.2

Adineko pertsonek osasunarekin duten erlazioa desberdina da; sarritan gaixotasun kronikoak edo mendetasunezko egoerak pairatzen dituzte adineko pertsonek. Ondorioz, gainerako biztanleriak baino gehiago erabiltzen dituzte, adineko pertsonek,

osasun-zerbitzuak eta sendagai gehiago kontsumitzen dituzte. Zehazkiago, zentzu horretan egindako azterketek adierazi dutenez, 65 urtetik gorako pertsonek ospitaletan egiten dituzten sarrerak gainerako adineko pertsonek egiten dituztenen bikoitza dira.

Ildo horretan egindako ikerketa gehienek adierazi dutenez, emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dituzte, betidanik, osasun-zerbitzuak. Hala ere, estatistikei erreparatuz, emakumeek kontsulta gehiago egiten dituzte edo anbulatoriora gehiagotan joaten dira, baina ospitaletan egiten diren egonaldiei erreparatuz, oso gutxi dira emakumeak.

Joera hori aldatu egiten da 65 urtetik gorako pertsonen taldean. Emakume eta gizonen adinak gora egin ahala, parekatu egiten da bi sexuek osasun-zerbitzuak erabiltzen duten maiztasuna.

**6.4. TAULA Medikuaren kontsultara joateko maiztasuna urtean, adinaren eta sexuaren arabera (%) 1997-2002**

| | GIZONAK | | | | EMAKUMEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | 65 ETA GEHIAGO | | GUZTIRA | | 65 ETA GEHIAGO | |
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| Behin ere ez | 25,4 | 23,7 | 10,4 | 7,5 | 17,8 | 17,7 | 7,9 | 7,8 |
| Behin edo bitan | 40,4 | 41,8 | 27,3 | 28,7 | 38,1 | 40,0 | 24,1 | 27,9 |
| 3-9tan | 25,8 | 26,4 | 41,0 | 44,7 | 33,4 | 32,2 | 47,2 | 44,9 |
| 10 eta gehiagotan | 8,4 | 8,2 | 21,1 | 19,1 | 10,1 | 10,1 | 20,7 | 19,4 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunaren Inkesta.

*— Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte, betidanik, osasun-zerbitzuak gizonek baino.*

*— Adinak aurrera egin ahala, parekatu egiten da emakumeek eta gizonek osasun-zerbitzuak erabiltzeko duten maiztasuna.*

Emakumeen eta gizonen ospitaleratzeei buruzko kopuruei dagokienez, antzeko kopuruak lortu dira bi taldeetan, nahiz eta desberdintasunak ikus daitezkeen ospitaleratzea eragindako arrazoiak kontuan hartuta. 2001eko Ospitale Mugikortasunaren Estatuko Inkestaren arabera, 65-74 urte bitarteko gizonen artean adin bereko emakumeen artean baino indize altuagoak lortu dira ospitaleratzeei dagokienez. Aitzitik, emakumeak dira gehiengoa 85 urtetik gorako pertsona ospitaleratuen artean, nahiz eta hori ulertzeko kontuan hartu behar den emakumeak urte gehiago bizi direla.

**6.5. TAULA Alta jaso duten gaixoak bizi diren lekuaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2001**

| | BI SEXUAK | | | GIZONAK | | | EMAKUMEAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO |
| Araba | 5.930 | 5.118 | 2.806 | 3.662 | 2.688 | 1.169 | 2.268 | 2.429 | 1.637 |
| Gipuzkoa | 13.977 | 11.504 | 5.702 | 8.239 | 5.900 | 2.204 | 5.739 | 5.604 | 3.497 |
| Bizkaia | 23.746 | 18.668 | 7.049 | 13.892 | 9.387 | 2.497 | 9.854 | 9.281 | 4.552 |
| EAE | 43.653 | 35.290 | 15.557 | 25.792 | 17.975 | 5.870 | 17.861 | 17.314 | 9.687 |

ITURRIA: Estatistika Institutu Nazionala. Ospitale-mugikortasunari buruzko Inkesta, 2001.

Ospitaleko egonaldiaren iraupena antzekoa da 65 urtetik gorako emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Adin horretako pertsonek, batez beste, hamar egun ematen dituzte ospitalean, baina emakumezkoen batez besteko egonaldia gizonezkoena baino luzexeagoa da.



**6.6. TAULA** **Alta jaso duten gaixoen batez besteko egonaldia (egunetan), bizi diren lekuaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera.2001**

| | BI SEXUAK | | | GIZONAK | | | EMAKUMEAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO | 65-74 URTE | 75-84 URTE | 85 URTE ETA GEHIAGO |
| EAE | 9 | 11 | 10 | 9 | 9 | 9 | 10 | 12 | 10 |
| Araba | 10 | 10 | 11 | 10 | 9 | 9 | 10 | 11 | 13 |
| Gipuzkoa | 10 | 13 | 10 | 10 | 11 | 9 | 9 | 16 | 10 |
| Bizkaia | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 8 | 10 | 10 | 9 |

ITURRIA: Estatistika Institutu Nazionala. Ospitale-mugikortasunari buruzko Inkesta, 2001.

# HERIOTZA ERAGITEN DUTEN ARRAZOIAK 6.3

Emakumeen eta gizonen datuak erabat desberdinak dira heriotzari dagokionez. Gizonen heriotza-tasak beti gainditzen du emakumeena, 65 urtetik 80 urtera bitarteko biztanleen artean; zenbait kasutan portzentajeak bikoiztu egiten dira. 80 urtetik aurrera bakarrik areagotzen da emakumeen heriotza-tasa, izan ere, adin-tarte horretan emakume asko dago, emakumeen bizitza gizonena baino luzeagoa delako funtsean.

## 6.7. TAULA Adineko pertsonen heriotzak, bost urteko tartean, EAEn. 2000

| | GUZTIRA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 65-69 | 1.397 | 989 | 10,09 | 408 | 4,83 |
| 70-74 | 2.099 | 1.433 | 14,62 | 666 | 7,89 |
| 75-79 | 2.642 | 1.572 | 16,04 | 1.070 | 12,68 |
| 80-84 | 2.816 | 1.357 | 13,85 | 1.459 | 17,28 |
| 85-89 | 2.875 | 1.088 | 11,10 | 1.787 | 21,17 |
| 90-94 | 2.089 | 648 | 6,61 | 1.441 | 17,07 |
| 95-99 | 709 | 176 | 1,80 | 533 | 6,31 |
| 100 eta gehiago | 95 | 25 | 0,26 | 70 | 0,83 |
| **GUZTIRA** | **18.242** | **9.801** | **100,00** | **8.441** | **100,00** |

ITURRIA: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

Heriotza eragiten duten arrazoiak gizarte baten garapen ekonomikoa ezagutzeko adierazle egokia dira. EAEko heriotza gehienak tumoreek eta zirkulazio-sistemaren gaixotasunek eragindakoak dira. Adineko emakumeen eta gizonen heriotzen arrazoien artean desberdintasunak aurkituko ditugu, nahiz eta ez izan garrantzitsuegiak. Horrela, emakumeen heriotza eragiten duen arrazoi nagusia zirkulazio-sistemarekin erlazionatutako gaixotasunak eta tumoreak dira, eta neurri txikiago batean arnas-aparatuarekin eta digestio-aparatuarekin erlazionatutako gaixotasunak, gaixotasun endokrinoak eta adimen-asaldurak eta portaeraren asaldurak. Gaixotasun horiek ere agertzen dira gizonen heriotza eragiten duten arrazoi gisa, baina ez dute hain agerpen handia. Horrela, 65 urtetik gorako gizonen artean portzentaje altuagoak lortu dira tumore, zirkulazio-sistema eta arnas-sistemaren gaixotasunek eragindako heriotzei dagokienez. Gainera, heriotza eragindako arrazoi edozein izanik, gizonak emakumeak baino gazteago hiltzen dira eta, askotan, 10 urte tartea izaten da.

*— Adineko emakumeen heriotza eragiten duten arrazoi nagusiak zirkulazio-sistemaren gaixotasunak eta tumoreak dira.*
*— Adineko gizonak hiltzeko arrazoi nagusia tumoreak, zirkulazio-sistemaren gaixotasunak eta arnas-sistemaren gaixotasunak dira.*

Nahiz eta adineko emakumeen eta gizonen artean antzekoak diren heriotza eragiten duten arrazoiak, arrazoi horien agerpena aldatu egiten da sexu batetik bestera. Horrela, adibidez, bi sexuen kasuan tumoreak dira heriotza eragiten duten arrazoi nagusia, baina arrazoi horregatik hiltzen diren gizonen proportzioak emakumeena bikoizten du. Zentzu berean, adimen-asaldura, zahartasun edo gaixotasun endokrinoen ondorioz hildako emakume-kopuruak ia bikoiztu egiten du antzeko arrazoiengatik hildako gizon-kopurua.

## 6.8. TAULA EAEko adineko pertsonen heriotzak, heriotzaren arrazoiaren, sexuaren eta adinaren arabera (2001)

| ARRAZOIA | ADINA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-89 | 90-94 |
| GAIXOTASUN KUTSAKORRAK ETA PARASITARIOAK | | | | | | |
| Gizonak | 23 | 31 | 31 | 24 | 12 | 7 |
| Emakumeak | 6 | 21 | 18 | 25 | 20 | 20 |
| TUMOREAK | | | | | | |
| Gizonak | 552 | 627 | 562 | 372 | 228 | 91 |
| Emakumeak | 191 | 254 | 312 | 303 | 245 | 129 |
| ODOL ETA ORGANO HEMATOPOIETIKOEN GAIXOTASUNAK ETA INMUNITATE-MEKANISMOA ERAGITEN DUTEN HAINBAT ASALDURA | | | | | | |
| Gizonak | 3 | 2 | 5 | 4 | 6 | 6 |
| Emakumeak | 1 | 4 | 3 | 8 | 9 | 11 |
| GAIXOTASUN ENDOKRINOAK, NUTRIZIONALAK ETA METABOLIKOAK | | | | | | |
| Gizonak | 21 | 24 | 36 | 41 | 31 | 17 |
| Emakumeak | 12 | 32 | 41 | 93 | 62 | 46 |

## 6.8. TAULA EAEko adineko pertsonen heriotzak, heriotzaren arrazoiaren, sexuaren eta adinaren arabera (2001) (jarraipena)

| ARRAZOIA | ADINA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-89 | 90-94 |
| ADIMEN- ETA PORTAERA-ASALDURAK | | | | | | |
| Gizonak | 4 | 16 | 28 | 51 | 52 | 42 |
| Emakumeak | 2 | 14 | 38 | 81 | 124 | 143 |
| NERBIO-SISTEMAREN ETA SENTIMEN-ORGANOEN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 30 | 45 | 85 | 57 | 36 | 21 |
| Emakumeak | 20 | 44 | 59 | 82 | 82 | 58 |
| ZIRKULAZIO-SISTEMAREN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 236 | 385 | 501 | 448 | 385 | 192 |
| Emakumeak | 81 | 211 | 357 | 584 | 796 | 666 |
| ARNAS-SISTEMAREN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 70 | 130 | 208 | 182 | 192 | 102 |
| Emakumeak | 23 | 37 | 62 | 117 | 167 | 135 |
| DIGESTIO-SISTEMAREN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 62 | 79 | 78 | 66 | 52 | 20 |
| Emakumeak | 21 | 40 | 65 | 83 | 96 | 71 |
| AZALAREN ETA AZAL AZPIKO GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 0 | 2 | 2 | 1 | 3 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 1 | 1 | 2 | 5 | 2 |
| HEZUR- ETA GIHAR-SISTEMAREN ETA EHUN KONJUNTIBOAREN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 2 | 2 | 7 | 7 | 9 | 5 |
| Emakumeak | 5 | 8 | 12 | 19 | 28 | 21 |
| SISTEMA GENITOURINARIOAREN GAIXOTASUNAK | | | | | | |
| Gizonak | 13 | 21 | 25 | 37 | 28 | 21 |
| Emakumeak | 9 | 9 | 21 | 31 | 40 | 41 |
| SORTZETIKO MALFORMAZIOAK, DEFORMAZIO ETA ANOMALIA KROMOSOMIKOAK | | | | | | |
| Gizonak | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Emakumeak | 1 | 0 | 3 | 0 | 1 | 0 |

## 6.8. TAULA EAEko adineko pertsonen heriotzak, heriotzaren arrazoiaren, sexuaren eta adinaren arabera (2001) (jarraipena)

| ARRAZOIA | ADINA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-89 | 90-94 |
| BIHOTZ-GELDITZEA, LAGUNTZARIK JASO EZ DUEN ETA ARRAZOIA EZAGUTZEN EZ DEN HERIOTZA | | | | | | |
| Gizonak | 4 | 10 | 15 | 18 | 11 | 12 |
| Emakumeak | 2 | 8 | 14 | 17 | 23 | 24 |
| ZAHARTASUNA | | | | | | |
| Gizonak | 0 | 1 | 1 | 3 | 6 | 6 |
| Emakumeak | 0 | 0 | 5 | 17 | 33 | 39 |
| SINTOMA ETA EZAUGARRI EZOHIKO KLINIKOAK ETA LABORATEGIKOAK | | | | | | |
| Gizonak | 7 | 12 | 10 | 11 | 2 | 6 |
| Emakumeak | 4 | 7 | 14 | 9 | 16 | 16 |
| HERIOTZA ERAGITEN DUTEN KANPO-ARRAZOIAK | | | | | | |
| Gizonak | 40 | 43 | 27 | 16 | 13 | 9 |
| Emakumeak | 13 | 18 | 26 | 28 | 32 | 20 |
| ARRAZOI GUZTIAK | | | | | | |
| Gizonak | 1.067 | 1.431 | 1.621 | 1.338 | 1.066 | 557 |
| Emakumeak | 391 | 708 | 1.051 | 1.499 | 1.779 | 1.442 |

ITURRIA: INE

Gaixotasunen ondorioz gertatzen dira heriotza asko, baina badaude heriotza eragiten duten arrazoi gehiago, hala nola ezbeharrak, erorketak edo buru-hilketak. Buruhilketa ez da askotan gertatzen adin honetako pertsonen artean, baina gertatzen denean, sexuen araberako desberdintasunak ikus daitezke. Gehiago dira bere buruaz beste egiten duten gizonak adin-tarte guztietan; hala ere, 50 urtetik gorako emakumeen artean gero eta agerpen handiagoa dute buru-hilketek.

2001ean 60 urtetik gorako pertsonen buru-hilketak guztizkoaren %45,3 izan ziren. Nahiz eta, eskuarki, gehiago diren bere buruaz beste egiten duten gizonak, bere bu-

ruaz beste egin zuten emakumeen erdiak baino gehiagok hirurogei urte baino gehiago zituzten.

### 6.9. TAULA Buru-hilketen sailkapena. 2001. Portzentaje bertikalak

| | GUZTIRA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 60 urte arte | 64 | 45 | 58,4 | 19 | 47,5 |
| 60 urte eta gehiago | 53 | 32 | 41,6 | 21 | 52,5 |
| Guztira buru-hilketak | 117 | 77 | 100,0 | 40 | 100,0 |

ITURRIA: INE. Buru-hilketen Estatistika.

## OSASUNAREN GAINEKO ARRISKUAK 6.4

Osasunari dagokionez, biztanleriaren artean badauden hainbat portaera kaltegarri, hala nola tabakoa eta alkoholaren kontsumoa. Zentzu horretan sexuen arteko desberdintasunak nabarmen geratu dira inkesta gehienetan. Eusko Jaurlaritzak 2002an landutako Osasunaren Inkestan 1997an lortutako datuak parekatu dira.

Tabakoaren kontsumoari erreparatuz, emaitza desberdinak ikus daitezke gizonen eta emakumeen artean. Horrela, pertsona erretzaileen portzentajea (sarritan erretzen dutenak eta noizean behinka erretzen dutenak) askoz ere altuagoa da gizonen kasuan. Adinarekin desberdintasun horiek neutralizatzea lortzen da; horrela, 16-44 urte bitarteko gizon eta emakumeen artean ez da ia desberdintasunik, nahiz eta bertan erre-

gistratu diren portzentajeak altuagoak diren maiztasunari erreparatuz. Aitzitik, 65 urtetik gorako emakumeek aitortu dute ez direla erretzaileak (%93,3) eta gizonen %43,7k adierazi dute gauza bera. Hain zuzen, adin horretako gizonen erdiak baino gehiagok esan dute erretzaileak direla (%15,5) edo erretzaile ohiak diren (%37,5).

### 6.10. TAULA 65 urtetik gorako pertsonen tabakoaren kontsumoa, sexuaren arabera. 1997-2002

| | EZ DU ERRETZEN | | ERRETZAILE OHIA | | NOIZEAN BEHINKAKO ERRETZAILEA | | ERRETZAILEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| Emakumeak | 94,7 | 93,3 | 2,3 | 3,2 | 0,6 | 0,6 | 2,4 | 2,9 |
| Gizonak | 38,3 | 43,7 | 37,3 | 37,7 | 6,9 | 3,1 | 17,5 | 15,5 |
| **GUZTIRA** | **71,9** | **72,8** | **16,4** | **17,5** | **3,2** | **1,6** | **8,5** | **8,1** |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunaren Inkesta.

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, antzeko joerak azpimarratu behar dira. Gehiago dira asko edo gehiegi edaten duten gizonak emakumeak baino eta gehiago dira emakumeak gizonak baino noizean behinkako edaleen edo edaten ez dutenen artean. Hala ere, pertsona gazteenen artean desberdintasunak neutralizatzea lortuko da eta antzeko portzentajeak erakutsi dituzte. 65 urtetik gorako gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak, nahiz eta egon badauden, ez dira tabakoaren kasuan bezain nabarmenak.

65 urtetik gorako emakumeen erdiak baino gehiagok adierazi dute noizean behinka edaten dutela, eta erdiak baino zertxobait gutxiagok adierazi dute (%39,6) ez dutela edaten. Aitzitik, gizonen %5,7k adierazi dute ez dutela edaten eta %70 dira noizean behinkako edaleak.

## 6.11. TAULA 65 urtetik gorako pertsonen alkohol-kontsumoa sexuaren arabera. 1997-2002

| | EZ DU EDATEN | | EDALE OHIA | | NOIZEAN BEHINKA EDATEN DU | | EDALE NEURRITSUA | | EDALE HANDIA | | GEHIEGIZKO EDALEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| Emakumeak | 37,6 | 39,6 | 2,3 | 1,9 | 40,9 | 40,5 | 16,7 | 12,9 | 2,2 | 4,2 | 0,2 | 0,9 |
| Gizonak | 6,3 | 5,7 | 14,1 | 9,1 | 25,6 | 32,2 | 39,7 | 40,1 | 11,9 | 10,3 | 2,5 | 2,6 |
| **GUZTIRA** | **24,9** | **25,5** | **7,1** | **4,9** | **34,7** | **37,1** | **26,0** | **24,2** | **6,1** | **6,7** | **1,1** | **1,6** |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunaren Inkesta.

# ADINEKO PERTSONAK ETA EZINTASUNA 6.5

Pertsonek ezintasunarekin duten erlazioa aldatu egiten da bizi-tartearen arabera. Horrela, zenbait kasutan, adin gazteagotan ezintasuntzat jotzen diren egoera batzuk ez dira ezintasun gisa ikusten adin zaharrenetan.

Ezintasunak dituzten pertsonen artean egindako ikerketetan oso gutxitan aztertu dira, berariaz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak. Ezintasuna esatean pertsona batek bizitza arrunta egitea oztopatzen duen muga ulertu behar da

Gehiago dira ezintasunak dituzten emakumeak adin-tarte guztietan eta batez ere ezintasunak dituzten 65-69 urte bitarteko emakumeen artean. Gero eta gehiago dira emakumeak aztertzen den adin-tarteak gora egin ahala; horrela, 85 urtetik gorako emakumeak dira adin-tarte horretako pertsona ezinduen %73,1. Datu horrek ga-

rrantzi handia badu ere, ondorioak kontu handiz aztertu behar dira eta kontuan hartu behar da emakumeak urte gehiago bizi direla.

**6.12. TAULA Ezintasunak dituzten 64 urtetik gorako pertsonak adinaren arabera. 1999**

| | GUZTIRA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 65-69 urte | 17.823 | 7.767 | 43,6 | 10.056 | 56,4 |
| 70-74 urte | 16.215 | 6.123 | 37,8 | 10.092 | 62,2 |
| 75-79 urte | 17.345 | 5.220 | 30,1 | 12.125 | 69,9 |
| 80-84 urte | 14.228 | 4.023 | 28,3 | 10.205 | 71,7 |
| 85 urte eta gehiago | 15.083 | 4.063 | 26,9 | 11.020 | 73,1 |
| **GUZTIRA** | **80.694** | **27.196** | **33,7** | **53.498** | **66,3** |

ITURRIA: INE. Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoerari buruzko inkesta. 1999.

Bi sexuen arteko desberdintasunak ikusiko ditugu, era berean, beste adin batzuetan ere. 64 urtetik gorako emakumeen artean erregistratu dira indizerik altuenak edozein motako ezintasun aztertzean; horrela, adibidez, adin-tarte guztietan ikus daitezke salbuespenak: komunikatzeko arazoak dituzten 65-79 urte bitarteko gizonak egoera berean dauden emakumeak baino gehiago dira.

## 6.13. TAULA Ezintasunak dituzten 64 urtetik gorako pertsonak ezintasun-motaren eta adinaren arabera. 1999

| | 65-69 | | 70-74 | | 75-79 | | 80-84 | | 85ETIK GORA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E |
| **GUZTIRA** | **7.767** | **10.056** | **6.123** | **10.092** | **5.220** | **12.125** | **4.023** | **10.205** | **4.063** | **11.020** |
| Ikusteko | 1.377 | 2.127 | 1.005 | 3.103 | 743 | 5.141 | 621 | 3.213 | 793 | 2.099 |
| Entzuteko | 2.028 | 2.454 | 2.682 | 3.187 | 3.286 | 4.069 | 968 | 3.032 | 1.499 | 4.100 |
| Komunikatzeko | 525 | 0 | 431 | 615 | 521 | 440 | 483 | 544 | 745 | 1.193 |
| Ikasteko, ezagutzak erabiltzeko eta jarduerak garatzeko | 525 | 0 | 564 | 815 | 419 | 1.259 | 564 | 1.254 | 978 | 2.467 |
| Mugitzeko | 2.047 | 3.268 | 1.689 | 2.469 | 1.767 | 2.648 | 1.389 | 3.221 | 1.112 | 5.931 |
| Besoak eta eskuak erabiltzeko | 1.698 | 3.719 | 1.268 | 2.753 | 1.324 | 2.470 | 1.710 | 2.701 | 1.241 | 2.491 |
| Etxetik kanpo mugitzeko | 3.603 | 5.489 | 3.284 | 5.932 | 2.798 | 7.300 | 2.372 | 7.026 | 2.645 | 8.375 |
| Bere burua zaintzeko | 1.907 | 781 | 881 | 1.354 | 1.428 | 1.305 | 1.693 | 2.761 | 1.394 | 4.864 |
| Etxeko lanak egiteko | 1.793 | 3.329 | 1.556 | 5.230 | 1.964 | 5.642 | 2.636 | 5.875 | 1.975 | 7.859 |
| Beste pertsona batzuekin erlazionatzeko | 525 | 0 | 360 | 545 | 521 | 1.085 | 564 | 1.177 | 1.069 | 2.719 |

ITURRIA: INE. Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoerari buruzko inkesta. 1999.

Ezintasuna eragiten duen urritasuna kontuan hartuta, oraingoan ere emakumeen artean erregistratu dira tasa altuenak adin-talde guztietan. Hala ere, bereziki azpimarragarria da 65-69 urte eduki eta adimen-urritasunak dituzten pertsona gehienak gizonak direla eta hitz egiteko gaitasunarekin eta ahotsarekin erlazionatutako urritasunak sarriagotan ikusten dira gizonen artean.

**6.14. TAULA Ezintasunak dituzten 64 urtetik gorako pertsonak urritasunaren eta adinaren arabera. 1999**

| | 65-69 | | 70-74 | | 75-79 | | 80-84 | | 85ETIK GORA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E |
| Adimen-urritasunak | 501 | 0 | 564 | 815 | 419 | 958 | 398 | 544 | 355 | 1.985 |
| Ikusmen-urritasunak | 1.377 | 1.631 | 1.005 | 2.788 | 743 | 4.896 | 621 | 2.942 | 747 | 872 |
| Entzumen-urritasunak | 1.877 | 2.435 | 2.942 | 3.187 | 3.002 | 3.817 | 802 | 2.638 | 1.054 | 3.239 |
| Hitz egiteko eta ahotsaren urritasunak | 267 | 0 | 0 | 0 | 199 | 90 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Hezur eta artikulazioen urritasunak | 3.176 | 4.504 | 1.451 | 4.138 | 1.240 | 3.715 | 1.728 | 4.560 | 211 | 3.292 |
| Nerbio-sistemaren urritasunak | 523 | 841 | 452 | 447 | 698 | 507 | 406 | 625 | 164 | 1.122 |
| Erraietako urritasunak | 1.294 | 1.557 | 1.366 | 1.432 | 200 | 1.407 | 0 | 867 | 0 | 731 |
| Beste hainbat urritasuna | 484 | 305 | 823 | 904 | 459 | 1.687 | 1.114 | 2.004 | 2.183 | 4.095 |
| Ez da zehaztu | 230 | 235 | 0 | 0 | 0 | 174 | 0 | 371 | 328 | 398 |
| **GUZTIRA** | **7.767** | **10.056** | **6.123** | **10.092** | **5.220** | **12.125** | **4.023** | **10.205** | **4.063** | **11.020** |

ITURRIA: INE. Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoerari buruzko inkesta. 1999.

Horrez gain, askotan urritasun bat baino gehiago pairatzen dituzte pertsonek. Kasu honetan, 64 urtetik gorako pertsonen artean gehiago gertatzen dira horrelako egoerak pertsona gazteenen taldean baino. Horrela, adin horretako emakume gehienek (%62,4) eta gizonen erdiak baino gehiagok (%53) bi ezintasun baino gehiago dituzte. Gizonen %23,5 eta emakumeen %20,2 bakarrik dira ezintasun bakar bat dutenak.

Ezintasun-mailari dagokionez, datuak ikusita ondorio argigarriak lortu ahal dira. 64 urtetik gorako pertsonen joera nagusiarekin bat eginez, emakumeak gizonen bikoitza dira ezintasun larri edo osoei buruz galdetzean. Adin horretan ezintasun larriak edo osoak dituzten emakumeen artean ibiltzeko arazoak edukitzea eta etxeko lanak egiteko arazoak edukitzea dira nagusiki eragiten diren egoerak. Gizonek ere lortu dituzte indize altuak zentzu horretan, ere beren buruaz zaintzeko gaitasunari buruz

galdetzean eta handia da bertan erregistratutako portzentajea. Joera horiek ez dira aldatzen adin-tartearen arabera.

## 6.15. TAULA Ezintasunak dituzten 64 urtetik gorako pertsonak ezintasun-taldearen eta gogortasun-mailaren arabera. 1999

| | GUZTIRA | | ZAILTASUNIK GABE | | ZAILTASUNA ARINAK | | ZAILTASUN LARRIAK | | EZINEZKOA DA JARDUERA EGITEA | | EZ DA ADIERAZI | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E |
| **GUZTIRA** | **139.085** | **298.018** | **1.522** | **4.626** | **43.599** | **89.559** | **57.602** | **118.494** | **33.869** | **79.598** | **2.493** | **5.740** |
| Ikusteko | 6.811 | 20.972 | 0 | 0 | 4.394 | 9.799 | 2.019 | 9.107 | 398 | 1.429 | 0 | 636 |
| Entzuteko | 13.275 | 19.568 | 851 | 1.587 | 7.238 | 12.090 | 4.779 | 4.662 | 89 | 979 | 318 | 251 |
| Komunikatzeko | 3.256 | 3.816 | 0 | 0 | 841 | 500 | 1.109 | 1.396 | 1.145 | 1.920 | 161 | 0 |
| Ikasteko, ezagutzak aplikatzeko, zereginak garatzeko | 5.383 | 12.410 | 0 | 0 | 2.008 | 3.852 | 2.421 | 5.591 | 632 | 2.542 | 323 | 425 |
| Mugitzeko | 15.421 | 32.746 | 132 | 90 | 5.563 | 13.730 | 9.140 | 14.819 | 102 | 4.107 | 484 | 0 |
| Besoak eta eskuak erabiltzeko | 13.720 | 23.942 | 0 | 686 | 3.132 | 6.707 | 5.627 | 9.794 | 4.721 | 6.754 | 239 | 0 |
| Etxetik kanpo mugitzeko | 27.845 | 68.532 | 340 | 1.548 | 10.609 | 23.491 | 10.961 | 30.356 | 5.613 | 12.551 | 323 | 587 |
| Bere buruaz zaintzeko | 14.730 | 25.282 | 199 | 496 | 4.481 | 6.985 | 7.296 | 13.350 | 2.754 | 4.452 | 0 | 0 |
| Etxeko lanak egiteko | 33.598 | 80.940 | 0 | 219 | 5.230 | 11.900 | 11.244 | 28.038 | 16.479 | 36.940 | 645 | 3.842 |
| Beste pertsona batzuekin erlazionatzeko | 5.046 | 9.811 | 0 | 0 | 102 | 505 | 3.008 | 1.382 | 1.936 | 7.924 | 0 | 0 |

ITURRIA: INE. Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoerari buruzko inkesta. 1999.